

uk

102. zenbakia / 2006 ekainak 18



getxoJazz 30.

getxoko xxx. europar jazzaldia

uztailak 2006

Biotz Alai Plz. - Algorta - 21:30

lehiaketa: EXIT 418 (Errusia)
JOHN ABERCROMBIE - MIROSLAV VITOUS

lehiaketa: MAGNUS MEHL QUINTET (Alemania)
EDDIE PALMIERI &
AFRO-CARIBBEAN JAZZ ALL - STARS

lehiaketa: JAZZ KAMIKAZE (Danimarka)
BENAVENT-DI GERALDO-PARDO

lehiaketa: MARTÍN AUER QUINTET (Alemania)
PHILIP CATHERINE TRIO

Talde Lehiaketaren Irabazlea
COBHAM - LOCKWOOD STRING QUARTET

Getxo Antzokia Plz. - Algorta - 19:30



1 TUNYI (Madril)

2 KARION (Catalunya)

3 ALBERT SANZ & ORGANICS (Catalunya)

4 DE DIEGO BROTHERS (Euskadi)

5 LE MONDE DE KOTA (Frantzia)



UK galeria > Mikel Martinez



Seguru asko azken urteotan Getxoko bazterrak eta herritarrak gehien eta hobekien erretratu dituen argazkilaria da Mikel Martinez (Bilbo, 1968). Haren azken lana *Photoalbum 2005* arrakastatsua izan da eta horretan Getxoko auzo guztietako jai guztietan ateratako irudiak bildu ditu.

Telebista kamera izateko ikasketak egin zituen Madrilén Mikelek. Gazte-gaztea zela, 1989an Egin egunkarian hasi zen beharrez. Han urte dexente eman eta gero sortu berria zen Egunkarian bere argazkiak argitaratzen hasi zen. Aldi berean Argia eta Aizu aldizkarietan kolaborazioak egiten zituen.

Orain dela hamar urte, Getxoko Bizarra Lepoan aldizkaria sortu zenean bertan ere lagundu zuen. Luzaroan UK-ko argazkilaria izan zen eta gaur egun ere gurean kolaborazioak egiten segitzen du. *Freelance* moduan lanean jarraitzen du; EHUra, Aizu aldizkarirako...



Lamiakoko maskarada, 2006

«Beste plan batzuk egiten dituzun bitartean gertatzen zaizuna da bizitza» Woody Allen

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Asier Mentxaka.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Gobelaurreko zubia.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Joseba Goñi.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Zirgalariak, Asier Mentxaka.
- 28. ARGAZKIA. Queen Elizabeth II Getxon, Mikel Martinez.
- 30. BERBETAN. Hasier Etxeberria, Unai Brea.
- 34. FOTOGRAFIA. Leioako Umore Azoka, A. M.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Zirgalariak film laburra.
- 43. MUSIKA. Getxoko jazzaldia. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Literatura Unibertsala bilduma. Liburuaren erreseinak.
- 45. KIROLAK. Alicia Gonzalez.

EUSKARAZ

- 46. ELKARRIZKETA. Guatemalako Nazaria Tum eta Domingo Alvarez.
- 47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Algotako Lasai tabernara.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Eromoko futbol txapelketa, 1962. Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Aurkene Iturrioz.



30 Hasier Etxeberria



11 Joseba Goñi

Berbetan

Aspaldidanik kazetari dabil ETBn. Jende aurrean hiru obsesio aitortzeko moduan da: literatura, artea eta gastronomia.



34 Leioako Umore Azoka



23 Akaitze Kamiruaga



54 Aurkene Iturrioz



14 Saioa Arenas

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBI/BIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubua 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Aritz Bregel

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bitor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Ametzaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamuruaga, Amaia Ariaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

| | | |
|---|--|---|
|  | <p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p> |  |
| <p>Ixasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p> | | |

| | |
|---|--|
|  | <p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p> |
|  | |

| | | |
|--|----------------------|--|
|  | <p>Leioako Udala</p> |  |
| <p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbizuko dirulaguntza jaso du</p> | | |

| | | |
|---|------------------------|---|
|  | <p>Erandioko Udala</p> |  |
| <p>Aldizkari honek Erandioko Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p> | | |

| | | |
|---|-----------------------|---|
|  | <p>Gorlizko Udala</p> |  |
| <p>Aldizkari honek Gorlizko Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p> | | |

| | |
|---|---|
|  | <p>Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p> |
|  | |

| | |
|---|---|
|  | <p>Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du</p> |
|  | |

| | |
|---|---|
|  | <p>94 491 13 37 uk@aldizkaria.biz</p> |
|---|---|

gugeu

Udaren atarian

HAUXE DUZUE UK aldizkariaren 102. zenbakia, 2006ko hamargarrena. Udaren atarian gaude, eguraldi onaren eta egun luzeen efektu baltsamiko eta lasaigarrien eraginpean, eta ezinbestean aldarte hobean sentitzen gara denok, alaiago edo. Jaiak ospatzen hasi dira herri eta auzoetan eta kultur eskaintza nabarmen areagotzen da urteko sasoi honetan. Getxoblues jaialdia egin berri da Algortako Portu Zaharrea eta Umore azoka arrakastatsua Leioan. Azken honetan egon ginen eta *Fotografia* atala, hain zuzen ere, erreferentzia gune bihurtu den kale artisten topagune honi eskaini diogu. Laster ere bada egitekoa Getxoko jazzaldia: ezin gal daitekeena. Aurten gainera, 30 urte beteko ditu jaialdiak; zorionik zintzoenak ekimen honen bultzatzaileei!

Aldizkaria argitataratzeaz gain, ahal dugunean, geure kultur ekarpena egitea gustatzen zaigu UK-kooi eta *Gu geu* ataltxu hau baliatu gura dugu antolatut dugun azkenaren berri zueganatzeko: Asier Mentxaka gure argazkilaria lanean erakusketa antolatu dugu. Imajina dezakezuen bezala, nagusiki gure eskualdean ateratako erretratu ederrek osatzen dute erakusketa. Hilaren 25era arte Algortako Satistegi kafetegian eta irailetik aurrera eskualdeko kultur etxeetan ikusi ahal izango duzue. Pasa zaitezte Mentxakaren argazkiak ikustera, ez zaizue damutuko.

Gure beste ekimen baten aurrerapena ere egin gura dugu: Natxo Libano piano jotzaile bikain getxoztarraren diskoa prestatzen gabiltza. Nagusiki piano soinuek beteko duten diskoa, oraintsu ekoizten gabiltzana iraila aldean prest egotea espero dugu.

Tira, ondo ibili!! 4

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



leihatila > Maddi Albizu

Geure buruari entzun

Gizakia izaki gregariora da, hau da, taldekoa. Hau sarri entzun dugu. Beste gizakirik gabe, zorionez, ezin bizi. Zorionez diot, izan ere, bestela bizitza oso aspergarria izango litzateke eta. Besteekin bizi behar horretan, ordea, bada oso erraz jaus gaitzekoen tranpatxorik: itsasoko olatuek beren gogora aisa eraman gaitzaketen era beretsuan, besteen erritmo eta beharren arabera bizitzera behartuta senti gaitzke, nor bere erritmo eta beharrak dituela ohartu ere egin gabe. Horregatik, lantzean behin bederen, "norberaren buruari entzutea" komeni da. Estima handian dudan lagun batek hala esan zidan behin. Batek bizitza osoa beren buruari entzuten ematen dute, besteei aditu ere egin barik. Hori txarra da oso. Besteek, aldiz, sekula ere ez diote beren baitari begirutzen. Bestea bezain txarra hau ere. Zutabe hau ez dut originaltasunez bukatuko esaten badizuet nire uste apalean, zoriontasuna orekan datzala. 4



Ugeraga inguruak / Gerra garaiko "Burdinazko Gerrikoaren" hiru bat bunker babesten ei zituen argazkiko menditxoak. Gerrikoak belarria galdu zuen... Gerra hartako garrasien hotsak ixiltzen joan dira... Orain burdinazko munstroek eragindako mendi magaleko oihuek gortu gaituzte, geu behintzat bai. Mendiari erraiak hustu dizkiote, odolostu dute, bere deiar eta intziriak klaxonek eta gurgipen zaratek mututuko dituzte... Burdinazko munstroari dinosauroaren antza hartuta, haiek desagertu ziren legez, hauek ez al ditugu deuseztatuko? Bihar Uribe Kostako korridorea hartuko al dugu? m / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Asier Mentxaka

argazkiak / photographs

Satistegi kafea / Algorta
uztaila / july 2006

uk uribe kostako aldizkaria

bbk

[lehen]



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[orain]



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / GOBELA NEGUBIBE KALEAN 1933-2006

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Ereagako jauregi zaharra



Testua: **Xa2 Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Treintayseisean hasi zen aro frankistaren erresuma (urte berean hasi zen ere euskararen garizuma). Brodatu gorritz janzten atorrak, orratzen mende jostuna, tirare batek ezkerra isilduz ziztaka ari zen eskuma jantzien bidez aldatu nahian herritarren nortasuna. Berdin etsaia, laguna, goraiatu Franco jauna, hain ozena zen Caudilloaren aldeko oihuen bilduma hormetan ere gelditu dela idatzita oihartzuna.

Ereagako jauregi zaharra, oroitza pen etxe santu, esnatu eta gazte denboran izan zinena kontatu: "Zokalora ere iristen ez zen gizon bat ez zen, ba, sartu! Doña Karmen zen bere emaztea, soineko fin, buru altu... Oraindik ere presente daukat ta nola ez gogoratu! Ene zenbat enplegatu zitzaion atzetik batu... Dantzalekuan nola baltsean bat-bi-hirua markatu, Espainian hala agintzen zuen herria nola dantzatu".

Bera zen buru, bera eredu, jenerala, koronela... eta gogoko zuen Getxoko Ereagako hotela. Baina denbora aurrera doa, trenak bidean bezela, eta guztia iragana da, musika, dantza, franela, harribitxiak, laudorioak... akabo Euskal Zartzuela! Bada, kendu dezatela behin jarritako kartela, "Franco" hitzaren poto argia, lehen lore, orain eskela... Gero esaten dute pintadak debekatuta daudela!

* Doinua: bertsotan bai



txistea > haurraren aita

Familia oneko alaba bi:
-Ba aldakizu azkena, Vanessa? Haurdun nago!
-Haurdun? Haurrak aita nor duen jakingo duzu, noski!
-Aizu, indabak jaten dituzunean, zuk jakiten al duzu zein alek sortu dizkizun haizeak?

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)

erakusketa > Asier Mentxakaren argazkiak



Erakusketan ikus daitezkeen Asier Mentxakaren lan bi

Hauxe da, argazkigintzari diogun maitasuna bultzatuta, UK Uribe Kostako aldizkariak ekoizten duen hirugarren fotografia-erakusketa. Eskualdeko puntako argazkilarien erakusteta antolatuta genuen orain dela urte bi; iaz, Carlos Terrerosen skateari buruzkoa egin genuen; eta aurtun, aldizkari honetako argazkilaria den Asier Mentxakarena. Erakusketa formato handiko hogeitaz argazki osatzen dute, gehienak eskualdean bertan hartuak. Paisaiak, arkitekturak, naturak, detaileak... denetarik erretratatu du Asier Mentxakak berezkoa daukan begirada hotz, zorrotz eta erabatekoarekin.

Erakusketa ekainaren 25era arte, eta gero, uztailearen 3tik 25era arte eskegita egongo da Algortako Satistegi kafetegian. Ondoren, irailetik aurrera, eskualdeko kultur etxeetan eskegiko da. Ez ezazue galdu! m

ohiturak > San Juan suak



Ume taldea San Juan sua prestatzen Arrigunaga inguruan

"**Gaur** dala bihar dala Doniane..." dio Bizkaiko hainbat herritan sanjuanetan abesten den kanta zaharrak. Ekainaren 23ko iluntzean gertatuko da hori, urteko egunik luzeenari agur esateko egindako suen inguruan batzen garenean. Euskal Herriko ia txoko guztietan ospatzen den gau magikoak eta beragaz lotutako sineskerak kristautasunaren aurreko jaiakaz eta solstizio-gurtzeagaz daukate zerikusia. Hala ere, herriaren arabera dira suak pizteko gaiak eta erritualak. Ekanduen arabera, San Juan bezperako gaua jainuen gaua ere bada eta mendi batzuetan kutxa ireki bat utziz gero, izaki horiek (mamuak, galtzagorriak...) barruan sartu eta jabeari bere zerbitzuak eskainiko dizkiote biharamunean. Bestalde, Uribe Kostan, udalerririk guztietan pizten dituzte suak, baina Leioan eta Barrikan hartzen du festak aparteko garrantzia. m

saiaz getaria
HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa

..haria ...lehengo garaiek... ...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

inkesta > herritarrek 7,7ko nota ezarri diote Getxori



Getxoko Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzeko eta eduki ditzakeen arazoei irtenbide bat bilatzeko asmoz burutu duen inkestaren arabera, getxoztarrak nahiko pozik daude euren bizi-kalitateagaz eta 7,7ko nota jarri diote udalerrinari. Horrez gain, Bilbo Handiko udalerrietan eta orain dela urte batzuk baino hobeto bizi direla uste dute getxoztarrek. Hala ere, arlo batzuetan ez datoz guztiz bat Udalak egindako lanagaz eta, gai gehienetan nota nahiko onak eskuratu dituen arren, badaude oraindik biztanleak arduratzen dituzten alderdiak: etxebizitza, aparkalekua eta trafikoa. Datu horiei erantzunez, neurriak hartu dituztela azpimarratu dute udal ordezkariak eta beharrea jarraituko dutela ziurtatu ere egin dute. Bestek beste, Gobelan, Santa Eugenia eta Las Mercedesen egindako aparkalekuak; Etxezurin zein Konporten egindako babes ofizialeko etxeak; Andra Marin egingo duten auzo berria eta oinezkoentzat egokitutako kaleak aipatu dituzte. ^m

Etxebizitzarena da biztanleak gehien arduratzen dituen arazoetako bat

hondartzak > Ereagak bandera urdina eskuratu du



Hondartzetako kalitatearen berri ematen duen bandera urdina baino zorrotzagoak diren egiaztagiria (ISO 9001 edo 14001, EMAS sistema eta Q marka) dauden arren, kontsumitzaileek, erabiltzaileek eta turistek ezagunen duten sistema bera da. Azken urteotan ikur horren ospea auzitan jarri bada ere, hainbat dira Euskal Herrian bandera eskuratu duten hondartzak, tartean, Uribe Kostako Ereagak, Gorrondatxek eta Plentziak. Lehenbiziko aldia da Algortako hondartza egiaztagiriaren jabe dela; izan ere, Espainiako Ingurune eta Kontsumitzaile Hezkuntzako Elkarteak (ADEAC) egindako ikuskaritza gainditu du. Uraren kalitatea eta ekipamenduak izaten dituzte kontuan ikuskatzaileek. Ereagak beharrezkoak diren zerbitzu guztiak ditu (minusbaliotasunak dituztenek bainua hartzeko sistema barne), baina hasiera batean, uraren kalitatea oztupo izan zen. Orain dela gutxi egindako analisisiek, ordea, egoera egokia dela egiaztatzen dute. ^m

Ikurra jasotzeak ospe handia ematen dio hondartzari

[erretratua]



“Abade izateaz oso harro egon arren, ez nentorren bat gauza batzukaz: Elizaren hierarkia, zelibatoa...”

Joseba Goñi > Elizatik gasolindegira

Guraso nafarren seme, Joseba Goñi Bilbon jaio zen 1941ean, baina dagoeneko lasai asko esan dezakegu getxoztarra dela. Gaur egun Getxo eta Berango arteko gasolindegiko nagusia da, baina oso bestelako lanbideetan ere jardun izan du: gaztetan, hamar urtez ibili zen abade, Zorrotzan eta Portugaleten. “Portugaleteko parrokiaren sekulako jazarpena jasaten genuen: Guardia Zibilak behin eta berriro etortzen zitzaizkigun, gauz ateratzen gintuzten obetik galdeketak egiteko, isunak ipintzen zizkiguten...”. Franco hil osteko urte nahasiak ziren, eta Portugaleteko abadeak ez ziren, bistan denez, boterearen lagun minak. “Mugitu egiten ginen, giza eskubideen alde eta...”, dio Goñik azalpen zehatzagorik ezean. Azkenean, baina, Eliza utzi zuen: “Abade izateaz oso harro egon arren, ez nentorren bat gauza batzukaz: Elizaren hierarkia, zelibatoa...”. Algorta erdian oraindik ere dagoen gasolindegia beraren familiarena izanik, hantxe hasi zen beharrea, ia 40 urte zeuzkala. “Ondoren, hau ipini nuen”. Hala ere, ez du kristau giroarenganako harremana guztiz eten, Herria 2000 Elizako kide izaten segitzen du eta. “1973an sortu genuen elkarteak, gizartearen arazo garrantzitsuez hausnarketa egiteko”. Gaur egun, hainbat abade, abade ohi eta kristau elkartetan osatzen du Herria 2000 Eliza, eta argitalpen ugari egiten dute intereseko gaiez, beti ere ikuspegi aurrerakoi batez. Goñi da, hain zuzen, argitalpenen arduraduna. Eta urte askotarako. Lanetik jubilatzeko zorian ere, badauka oraindik puska baterako gasolina. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Ajuria
taberna
Andrés Cortina 2
ALGORTA

Gizarte Zerbitzuen iazko jarduna

2.728 familiagaz lan egin zuten iaz, **1.004 lagunentzako Oinarrizko Errenta** bideratu zuten, eta lankidetzako **elkarteakaz** egindako hitzarmenetara eta laguntzetara **241.949** euro zuzendu

Aurkeztu berri duten txostenak adierazten duenez, 2.728 familiagaz lan egin zuten pasa den urtean Udaleko Gizarte Zerbitzuek, hau da, getxoztarren %7k oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arreta jaso zuten 2005ean. Oinarrizko Errenta izan da Gizarte Zerbitzuek bideratu duten eskari nagusia, hala, iaz 1.004 lagunek jaso zuten aldizkako prestazio ekonomikoa.

Udal Gizarte Zerbitzuen (GZ) iazko jarduna laburbiltzen duen txostenak ondorioztatzen duenez, bertaratu diren egindako eskarien artean nagusia Oinarrizko Errentarena izan da (OE), eta bigarren postuan norbanakoaren burujabetza mugatuaren gainekoak egon dira. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen eta GZek tramitatzen duten izaera ekonomikoko aldizkako prestazio bat da OE, bizirauteko oinarrizko gastuei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenentzat. 2005ean 338 kasu berri tramitatu zituzten GZek, 347 laguntza eten, 561en izaera aldatu, 108 berriro indarrean jarri, etab. Oro har, Getxon 1.004 lagunek jaso zuten OE. Bide batez, GZetako zinegotzi Iñaki Urkizak argitu duenez, *“datuok azaltzen dute Oinarrizko Errenta jasotzen duen giza taldea ez dagoela egoera honetan egonkortuta ezta finkatuta ere”*. Bestalde, norbanakoaren burujabetza mugatuari buruz, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua gorapatu du Urkizak. Horren hartzaileak eguneroko bizitzako jardueretan zailtasunak dituztenak dira (bakarriz bizi diren adinekoak, elbarrita-



Gizarte Zerbitzuen egoitza

sunen bat dutenak, familiak...); 2001etik ez dago itxaron zerrendarik eta iaz guztira 437 lagunek jaso zuten laguntza. Urkizak esan legez, *“arreta jaso zutenen kopurua jaitxi egin da eta laguntza orduen zenbatekoa igo”*. Oste-

«Ertzantza zein Udaltzaingotik bidalitako 91 partetatik %32 tratu txarren gainekoak ziren»

rantzean, Lege Aholkularitza programaz 68 lagun baliatu dira (60 andrazkoak) eta eskariaren arrazoi nagusiak banaketak, seme-alaben tutoretzak eta herentziak izan ziren. Bestalde, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak 91 parte bidali zituzten GZetara, %32 tratu txarren ingurukoak izan ziren eta %20 osasun mentalagaz lotutakoak. Halaber, Heldu zerbitzura (agiriaren alorrean egoera irregula-

rrean dauden etorkinentzako orientzaioa) 301 kasu zuzendu zituzten Getxoko GZek.

Elkarteentzako diru-laguntzak

Lankidetzan diharduten elkarten artean 241.949 euro banatu dituzte; jarduera eremuaren arabera, %52 gaixotasun edo ezintasunen arlora bideratu dute, %19 immigrazio eta kulturartekotasunera, %14 aukera-berdintasunera, %10 adineko pertsonetara, etab. m

Datu batzuk

- **Aurrekontua (2006):** 10.000.000 eurotik gora.
- **Oinarrizko Errenta:** 1.004 lagunek jaso dute.
- **Elkarteentzako laguntzak:** 241.949 euro
- **GZen 2005 txostena:** Hainbat udal bulegotan egongo da eskuragarri.
- **Harremanetarako:** 94 466 01 30.

Eraikin esanguratsuak babesteko helburuagaz plan berezi bat osatzeko eskatu du Udalak



Etxe Arrosa ere babesteko dute

Getxoko Udaleko Gobernu Taldeak herriko eraikin esanguratsuak edo adierazgarrienak babesteko plan berezia osatzeko eskatu du, eta egiteko horretara 29.522 euro bideratuko ditu. Eratu beharreko planak kultura ondasun izendatuta dauden edota erakunderen batek babestutako eraikinen gaineko ikerketa egitea dauka helburu: egoitzen egoeraren azterketa, babestu beharreko ezaugarriek zeintzuk izan beharko luketen eta hori zelan gauzatu zehaztu... Horrela, zaharberitze lanak egin behar direnerako arauak edo betebeharrak aldeztu aurretik finkatuta egongo lirake eta baimenak eskatzeko egitekoak ere arinduko lirake. Izan ere, *“Hiri Antolaketa Plangintza Orokorak ezarritako irizpideak batzuetan ez dira nahikoa izaten, eta gaur egun, aldaketa batzuek Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren oniritzia*

behar dute”, azaldu du Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak. Horren albotik, osatuko duten planak ere aipatu bi erakunde onespene behar du.

Eraikin “babesgarri” gehienak esku pribatuetan daude, hala ere, badira baten batzuk jabetza publikokoak direnak, hala nola: udaltxea, Santa Clara edota Etxe Arrosa (Etxe sorgindua). Halaber, udalerrak badu babestu beharreko beste gune bat ere, kostaldetik hurbil dagoena, eta berbarako Portu Zaharra, Ereagako ingurua, Neguri eta Zugatzarte hartzen ditu bere baitan. Bestalde, Getxon badaude dagoeneko kultura ondasun izendatuta dauden eraikin zein azpiegiturak, besteak beste: Bizkaiko Zubia, Andra Mari eliza eta San Nikolas Plazatik Portu Zaharrerantz doan aldapan dagoen baseri bat. m

SENERREK IDATZIKO DU MAIDAGANEN METROA LURPERATZEKO PROIEKTUA

Euskal Trenbide Sareak Sener enpresari agindu dio Maidaganetik igarotzen den metroko trenbidea lurperatzeko proiektua idaztea. Guztira, 12 izan ziren lehiaketara aurkeztu ziren enpresak. 344.000 eurokoa da Senerrek egindako eskaintza eta txostena bost hilabete barru prest egongo dela aurreikusten du. Iberbengoako geltokia eraikitzearen proiektuaren idazkia ere burutuko du enpresak. Proiektu biak aldi berean hasiko dituzte datorren urteko amaieran eta lanek 18 hilabete iraungo dute.

GOBELA KIROLDEGIA ZARRATUTA ABUZTUAN

Joan den urteko udan legez, Gobelako kiroldegia atek zarratuko ditu abuztuan. Kirol arloko ordezkariak jakinarazi dutenez, erabiltzaileen kopurua nabarmen jaisten da garai horretan eta itxteak 50.000 euro aurrezteko ahalbidetzen du, hau da, gastuak erdira jaitea. Gainera, Getxo Kirolakeko arduradunek igerilekua garbitzeko aprobetxatuko dute. Bestalde, Fadura kiroldegia urte osoan irekita dagoen arren, igerilekua hil horretan ere hustuko dute garbiketara egiteko.

IBILGAILUAK ERAMATEKO GARABIAREN ZERBITZUA ESLEITU DU UDALAK

Estacionamientos y servicios S.A. enpresaren esku utzi du Getxoko Udalak txarto aparkatuta dauden ibilgailuak eramateko garabiaren zerbitzua. Kontratua urte bikoa izango da eta urtero 227.671,92 euro ordaindu beharko du. Gehienez 2.000 kilo garraiatu ahal izango ditu garabiak, baina behar izanez gero, 5.000 kilo garraiatzeko zerbitzu berezia eskainiko du. Eramango duen ibilgailuaren jabea abisua emateko pegatinak jarriko dituzte hura aparkatuta egon den lekuan eta ezin izango dute udaltzaingoaren baimenik gabe mugitu.

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor- ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

IRATI
moda gaztea opariak

Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Euskara

Udalerrian elebitasuna bultzateko kanpainia abian da

Getxon ematen den elebitasunaren errealitateari erantzuteko asmoz, hainbat ekimen prestatu ditu Euskara Zerbitzuak, besteak beste, Euskara Bizi izenekoak. Izan ere, bi hizkuntza ofizialen arteko bizikidetzaren natural eta etengabekoaren aldekoa da Udala, egindako azterketen arabera, euskara eta gaztelania elkarri hurbiltzen ari direlako. Udaleko ordezkarien esanetan, euskararen normalizazioagaz duen konpromisoa erakusten dabil getxoztar gizarteak.

Hain zuzen ere, 16 urtetik gorako 1.500 pertsona baino gehiagok ematen dute izena urtero Getxoko euskaltegietan eta euskara ikasten duten etorkinen portzentaje handiena dauka udalerriak. Gainera, hezkuntzan eredu elebidunen hazkundea etengabea da eta ugariak dira Udalak euskara sustatzeko programak bat egin dutenak: dendariak, ostalariak, kirol erakundeak, begiraleak, langileak...

Hartara, dagoeneko abian dagoen egitasmoagaz, gura duenak bere harremanetarako espazioak euskaraz eraikitzeko, indartzeko, sortzeko eta zabaltzeko aukera izatea gura du Getxoko Udalak. ^m

Kanpainaren kartela



Saioa Arenas > Saiazgetaria hoteleko jabea da algortarra

“Bake prozesuagaz nabaria da gure artera jende gehiago datorrela”



Saioa Arenas

XV. mendeko dorretxe ederra da Getariako Saiazgetaria hotela eta, kondairak dioenez, Juan Sebastian Elkano kapitainaren etxea ei zen. Hala ere, azken hori ezin izan dute frogatu, dokumentuak sute batean galdu ziren-eta. Egun, Saioa Arenasen eta Mikel Muñozaren etxea izateaz gain, hotela ere bada.

—Zergatik hotel bat?

—Mikelek, nire bikotekideak, hartu zuen erabakia. Mikelen gurasoek 1982an erosi zioten etxea Madrilgo Casatorreko markesari eta bertan igarotzen zituzten uda garaiak. Urteak aurrera joan ahala, gero eta gutxiago joaten ziren. Orduan, Mikelek Bilbon zuen lana utzi eta hotela jartzea erabaki zuen. Ni, ordea, ez negoen hain ziur. Heziketa berezia ikasi nuen unibertsitatean eta horretan egin gura nuen behar, baina azkenean, ez nuen lanik aurkitu, hotelean sartzera erabaki nuen.

—Zer eskaintzen duzue?

—Guztira 17 logela ditugu: zazpi itsasoaren gainean, beste zazpi kalera ematen dutenak eta hiru junior suite edo gela berezi. Kalekoek antzinako harrizko hormak mantentzen

dituzte. Itsasora ematen dutenak, ordea, berriak dira, baina izugarriko bistakaz, horma oso bat kristalezkoa da-eta. Horrez gain, bilera gela, egongela eta kafetegia daukagu.

—Nongoak dira hartzen dituzuen turistak?

—Gehienak barrualdekoak dira, madrildarrak eta katalanak. Hala ere, Munichetik Biarritzeraingo hegaldi merkeak jarri dituztenez, alemaniarrek ere ugariak dira. Jende asko nazkatuta dago Mediterraneo inguruko jendetzagaz eta hemengo janaria zein gaueko giroa oso erakargarria da.

—ETAren su-eten iraunkorrak eragina izango du turismoaren hazkunderan...

—Bai, hala da. Askok esan digute bakeagaz etortzen ausartu direla, euren ustez, “lehen ezinezkoa zelako”. Inguruko tabernakoak ere harritura daude Aste Santuan herrira etorri zen jende kopuruagaz, baina ez dakit horregatik izango den.

«Nire lagunaren gurasoek Madrilgo Casatorreko markesari erosi zioten etxea»

—Hotel bat martxan jartzeak gogorra ematen du.

—Aurrera atera dugu familiarena zelako. Gaur egun hau erostea ezinezkoa da, inbertsioa izugarria delako. Hasteko, negozioaren bideragarritasun azterketa egin behar duzu: langileak, soldatak... Gaueko turnoak, oraingoz, geuk egiten ditugu eta gela batean bizi gara. Nahiko gogorra da horrela bizitzea, ez daukagulako intimitaterik.

—Etxearen jatorria misterio bat da, ezta?

—Oso polita izango litzateke Elkanoren etxea dela esatea, baina ditugun azken datak 1832 urtekoak dira, aurreko dokumentu guztiak erre ziren-eta. Etxearen izena ere ez dakigu! Dorre bat izan zela bai, almena bat daukalako. Gainera, oso toki estrategikoan dago, Getariako itsasoko sarrera biak kontrolpean ditu eta kanpoko erasoetatik babes- teko egina zela uste dugu. ^m

Skaterren jaialdia

Seigarren urtez **Skate Pool Party** antolatu dute ohi legez ekainaren 23an, San Juan bezperan



Jaialdiaren kartela

Orain dela 6 urte Arrigunagako skate parkean poola (igerilekua) inauguratu zutenetik ospatzen dute skaterrek Pool Party, urtero data berean, ekainaren 23an, San Juan egunaren bezperan edota San Juan gauean. Hori baino lehen, Arrigunagako jaitsiera edo downhilla antolatzen zuten, eta skate parkerainoko alpada bajatu ondoren jai batez ematen zioten amaiera jardunaldiari. Hala, lehen eta orain, jaialdiak skate, artea eta kultura batzen ditu. Urtero legez, eguneari zehar poolaren eta parkearen margozketa lanak prestatu dituzte, ume eta gazte mailako txapelketa ospatuko da, skate erakustaldiak eta jardunaldiak zein bideo emanaldiak ez dira faltako, ohiko barbakoagaz aseko dute gosea... Musikak bere egingo du giroa Eguzkia zein Ilargia goian egonda, eta besteak beste, Valhalla

eta Bullet Noisen taldeen emanaldiak aurrekusten dira, eta txalaparta eta jembe doinuak ere entzuteko aukera egongo da. Eta sua protagonista den egunean eta batez ere gauean San Juan suaz gain, suzko zezena, su ikusgarriak, beselako suzko ikuskizunak... egongo direla esan barik doa. Beraz, skateagaz, musikagaz eta suagaz bat egin gura duenak Arrigunagako Pool Party dauka aukeretako bat. Hala ere, akordura ekarri hau ez dela Getxon egiten den ekitaldi bakarra, auzo eta bazter denetan isiotzen dira San Juan suak, bakoitzak erabaki beza non bizi xarmaz betetako gau berezi hau, zelan eman ongietorria udako solstizioari, zelan indarberritu eta babestu gura duen arima... ^m

Informazio gehiago: www.skatepoolparty.com

BULEGOAK GIZARTE ZERBITZUEN LANKIDE DIREN ERAKUNDEENTZAT

Getxoko Udalak bulegoak utziko dizkie Gizarte Zerbitzuen lankide diren erakundeek, datorren irailetik aurrera egoitza bat izan dezaten. Izan ere, Getxoko gobernu taldeak araudi berria onartu du elkarte eta erakundeek lokalak zentzuz banatzeko eta, bide batez, herriko taldeek dauzkaten beharrak eta burutzen dituzten ekintzak ezagutu ahal izateko. Bulegoak eskatzeko epea iragartzeko deialdi publikoak egin du Udalak eta ekainaren amaiera arte egongo da irekita.

GORPUZTI EGUNA OSPATUKO DUTE PORTU ZAHARREAN

Ekainaren 18an, domeka, Gorpuzti Eguna ospatuko dute Algortako Portu Zaharreko Etxetxu plazan eta hainbat ekintza antolatu dituzte egun horretarako. 12:00etan meza egongo da eta ondoren, 13:00etan gutxi gorabehera, Biotz Alai abesbatzaren eta sardinadaren txanda izango da. Arratsaldean, 19:00etan, musikagaz emango diote amaiera jaiari: Los Txikis taldeak emanaldia eskainiko du (sarrera dohainik izango da).

BALKOITIK BALKOIRA BERTSO SAIOAREN EDIZIO BERRIA

Ekainaren 16an, barikua, Balkoitik Balkoira bertso saioaren edizio berria egingo dute Algortako Portu Zaharreko Etxetxu plazan. Ekitaldia 22:30ean hasiko da eta sarrera dohainik izango da. Algortako Bertsolari Eskolaren (ALBE) eta Euskara Zerbitzuen egitasmoa da Balkoitik Balkoira. Aurten, Andoni Egaña txapeliduna eta Xabi Paia algortarra izango dira saioan parte hartuko duten bertsolariak. ALBEkoek 1998an San Nikolas plazan egin zuten lehenbiziko edizioa, baina balkoitik balkoira modua 1802an Tolosan egin zuten lehenbiziko aldiz.



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztailan

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



Juan Antonio Aresti > jaietako pregoilaria

“Leku guztietara joaten ginen dantza berriak ikastera, gero taldean irakasteko”

69 urte beteko ditu urriaren 15ean Juan Antonio Arestik. Leioako Vista Alegre auzoan jaio eta lasterrera Astrabudua partera joan zen bizitzera Txakurzulo baserrira. Bertan piztu zitzaion dantzarako zaletasuna. Lamiakoko Txikiak Taldea sortu eta gidatu zuen hainbat urtetan, baita dantzak irakatsi ere, medikuak lasaitasuna agindu zion arte. Orduan, dantzatik

«Txikitan hasi nintzen dantzan, 8 urterekin dagoeneko aureskua dantzatzeko nuen»

urrundu ezinik berau ikertzen hasi zen. Inguruko Aureskua sakon ikertu ondoren Leioako Elizateko Aureskua sortu zuen. Horrez gain, azkenaldian Kultur Leioan ari da Jotak eta Arin-arina irakasten.

—Nola hasi zinen dantza munduan?

—Txikitatik. 8 urterekin dagoeneko Aureskua dantzatzeko nuen. Gero nire osaben eraginez talde batean sartu nintzen. Txakurzulo baserriko nire osabak, Patxi eta Ramon, txistua eta akordeoia jotzen zuten. Hauek Astrabudian San Lorenzo Taldea sortu zuten eta hor hasi nintzen ni lehen urratsak ematen.

—Txikiak Taldearen sortzailea...

—Ezkondutik, Lamiakon hasi nintzen Aureskua erakusten eta gero Taldea sortu genuen. Nik hemengo Ezpata Dantza, Durangaldekoa ezagutzen nituen, baina dantza



Juan Antoni Aresti

gehiago ikasteko, Euskal Dantzari Biltzarrekoak ginenez, leku guztietara gindoazen, gero Taldean irakasteko. Ez pentsa! Kostatzen zitzaidan dantza berriak ikastea.

—Aureskuaren ikerketa sakona eta Leioako Elizateko Aureskua...

—Medikuak lasai egoteko esan zidanean dantzatzeari utzi eta ikerketara pasatu nintzen. Hainbat jenderekin berba egin nuen, batez ere, nagusiekin. 104 urte zituen dantzari ohi batekin ere berba egin nuen Txorierrin zer egin

zen jakiteko. Honekin guztiarekin, esan daiteke XVIII. mendeko Aureskua berreskuratu dugula. Eta Dantza hori nolabait gaur egunera moldatuz sortu dugu Elizateko Aureskua.

—Zer eman dizu dantzak urte hauetan guztietan?

—Ba, zer esango dizut. Satisfazio ugari. Dirurik ez, baina, satisfazio asko, eta hori ezin daiteke diruz ordaindu.

—Zer esan nahi du herriko jaietako pregoia irakurtzek?

—Ilusioz hartu nuen berria. Ba, esan nahi du herria nitaz gogoratu dela. m

Ekitaldi batzuk

EKAINAK 22, osteguna

- 20:00 Txupinazoa eta Pregoa Udaletxean.
- 20:15 Koadrilen jaitsiera.
- 21:30 Esku pilota, partida profesionalak.
- 23:00 Kontzertua: Kuraia + Nuuk-At.

EKAINAK 23, ostirala

- 13:00 Triki-Bertso-Poteoa.
- 21:00 Esku pilota partida profesionalak
- 22:30 Antzerkia Jaietan: "Amor.. y otros pecados". Kultur Leioa.
- 23:00 Kontzertua txosnetan: Sagarroi.
- 00:00 Su artifizialak.

EKAINAK 25, igandea

- 09:00 Txupinazoa eta Txistularien Kalejira
- 11:00 Koadrilen arteko Soka Tira Txapelketa.
- 12:00 Haurrentzako ekintzak (12:00 - 15:00).
- 15:00 Herri bazkaria Kandelazubietan.
- 18:00 Kontzertua Txosna gunean.
- 20:00 Haurrentzako antzerkia: "Kiki, Koko eta Moko".
- 22:00 Azken traka.

Lanean hasteko ikasten

Enplegu Tailerrean ikasten dauden lagunak Mendibileko baserria zaharberritzen dabilta



Baserria zaharberritzen dabilta lagunak

Harriz harri, egunez egun, eraikitzen doan baserria sumatuko zenuten Mendibileko biribilgunearen ondoan. Behar bainbat langile egoten dira harriak lekuan jarriz, zementua nahastuz edo egurra neurrira moztzen. Ez dira behargin arruntak. Langabetuak dira. 25 urtetik gorakoak eta lan egiteko lanbidea ikastea erabaki dutenak. Horretarako, Behargintzak antolatzen dituen tailerretan parte hartu dute hargin, zurgin eta igeltsero izateko. Orain ikasitakoa praktikan jartzen ari dira Mendibileko baserria eraikiz. Tailerraren azken urratsetan dabilta lan merkatuan lehen pausuak ematen hasteko. Aipatzekoa da lanean dauden 28 beharginetatik herena andrazkoak direla,

batez ere, kontuan hartuta sektore honetan gizonezkoen kopurua erabat gailentzen dela. Zimenduetatik hasita eta teiltuaren azken teila jarri arte hiru fasetan eraikiko dute baserria Enplegu Tailerrekoak, langileak txandakatuz aldi bakoitzean. Ekainaren 29rako proiektu honen lehen fasea bukatzea espero dute eta azken harria 2008rako. Ondoren baserria herri zerbitzuetarako erabiliko da. Azpimarratzekoa da ohiko euskal baserriaren materialak (harria, zura eta baserriar bistako adreilua) eta teknika tradizionalak berreskuratuko dituztela. Aurretik, Enplegu Tailerraren bitartez Errotazahar Errota eta Ondizko Probalekua ere berritu izan dira. m

PLATER-TIRO
ETA EHIZARAKO
KIROL-ELKARTEA



TABERNA-KARTUTXO DENDA

Posta kutxa 33 LEIOA
Tel: 94 633 81 59

uRondo

Estankoa

jai zorionsuak leioztar guztioi!

Sabino Arana 67
T: 94 464 92 33 - LEIOA

KURKUDI

HERRIKO TABERNA

Jaietan eta larunbatero
bokata goxo-goxoak
eta beroak



Errepresaliatuak etxera

Sabino Arana, 82 behe LEIOA

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
IMPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



— 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
— Ingelera 4 urtetik aurrera.
— Frantsesa DBHn.
— Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
— Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
— Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

[erandio]

Euskal selekzioen aldeko eguna

ESAITen “Zazpiak federazio bat” lemagaz bat egingo dute Erandioko hainbat elkartek

Ekainaren 17an euskal selekzioen aldeko jaia ospatuko dute Astrabuduan hainbat elkartek. Besteak beste, egun horretarako ekintzak antolatzen izan dira Axpuru Kultur Elkartea, Trabudu Dantzari Taldea, Atxazpe Mendi Taldea, Astrabuduko Kick Boxing Taldea, Iparraize Txistulari Elkartea eta Ahaire Trikitixa Elkartea. Egitasmoaren helburua herrita-

«Herrian ohikoak ez diren ikuskizunak ekartzen saiatzen dira antolatzaileak»

rren parte hartze zabala lortzea eta kirolan euskal ordezkariak aldarrikatzea da. Horretarako, herrian ohikoak ez diren kirolak eta ikuskizunak ekartzen saiatzen dira antolatzaileak; joan den urtean, esate baterako, harri-zulataleak erakustaldia egin zuten.

Axpuru Kultur Elkartea osatzen dutenen ideia izan zen euskal selekzioei babesela helarazteko festa antolatzea. Orain dela hiru urte izan zen hori eta berehala ESAITegaz harremanetan jarri ziren. Denboragaz, eta ospakizunaren aitzakiaz, Axpuru Kultur Elkartea sortu zuten. Gaur egun, urtean zehar makina bat kultur ekintza antolatzen dituzte Axpurukoek eta ESAITen ekitaldietan ere laguntzen dute.

Aurtengo ospakizunaren egitaraua

2006ko ediziorako, aurrekoen antzeko egita-



Euskal selekzioen aldeko jaia Erandion antolatzen duten hirugarren urtea da

raua prestatu dute egitasmoan parte hartzen duten elkarteek. Iaz bezala, kalejiragaz eman go diote hasiera jaiari (11:00) eta zantantzarrak, txistulariak, gaiteroak zein trikitilariak ikusi ahal izango ditugu Astrabuduko kaleetan barrena. Ondoren, ekitaldien aurkezpena, txalaparta erakustaldia eta dantzak Trabudu Dantza Taldearen eskutik.

14:00ak aldera, berriz, eta herri bazkaria hasi aurretik, trikipotea egiteko aukera egongo da. Behin jatekoa amaituta, Katxo eta Peio

bertsolarien txanda izango da.

Arratsaldeko 17:30ean, koadrilen arteko herri kirolak antolatu dituzte eta eguna amaitzeko, 19:30ean, erromeria egongo da Iruzur musika taldearen eskutik. Horrez gain, umeentzako puzgarriak jarriko dituzte goiz osoan zehar eta ESAITeko materiala salduko dute.

Hartara, ekintzetan ahalik eta jende gehien parte hartzea gonbidatu gura dute ekimenaren bultzatzaileak, “Zazpiak federazio bat” lemagaz bat egiteko. m

Ikasleentzako bloga

Erandioeusk deituriko bitakora jari du martxan Interneten Erandioko Udal Euskaltegiak



Erandioeusk blog-ean parte hartzeko: www.blogari.net/erandioeusk

20 urte betetzeaz batera, aro digitalean bete-betean sartu da Erandioko Udal Euskaltegia, orain dela hilabete pare bat abian jarri duen Erandioeusk blogarekin. Aste batzuetan probak egin ostean, joan den apirilaren 8an inauguratu zuten ofizialki euskal bitakora.

Aitor Iglesias euskaltegiako irakasleak ateratu zuen aurrera ekimena, ikasleek ingeles jatorriko blog batean idazten hasi zirela ikustean. “*www.blogari.net/erandioeusk* gogoratzen du Iglesiasek.

Batez ere etxetik erabiltzeko tresna dela dio irakasleak eta hura zelan erabili ikasteko tartetxo bat hartu behar dela nabarmentzen du. “*Ez da gatxa, baina, tresna berria denez,*

pazientziak hartu behar da”. Ez daki horregatik ete den, edo orain dela gutxi sarean dagoelako, baina oraindik jende gutxi parte hartzen duela dio. “*Bloga irekia da, hau da, bertan idazten dutenak irakasleak eta ikasleak dira, baina edozeinek erantzun dezake, askea da*”, azaltzen du eta jendea parte hartzea gonbidatu. “*Interneten ere euskaraz ibiltzea gura dugu. Gero eta garrantzitsuagoak dira sareko harremanak eta euskaraz bultzatu behar ditugu*”.

Akatsak eta zuzentasuna garrantzitsuak ez direla eta edozein gairen inguruan idatz daitekeela azpimarratzen du egitasmoaren arduradunak: herriko gertakariak, txutxumutxuak, bitxikeriak, edo dena delakoa. m

OBIETA KALEKO URBANIZAZIOA HOBETZEKO LANAK

Erandio Bekoan dagoen Obieta kaleko urbanizazioa berritzeko lanen lehen faseagaz hasi da dagoeneko Udala. Berriztatze lanak zortzi hilabetez luzatuko dira eta 1.253.315 euroko aurrekontua izango dute. Hori dela-eta, zirkulazioa bi noranzkoetan izango da Antonio Trueba, Gernika eta Txinboak kaleetan (hortik Obieta kaleagaz lotuko da). Autobus geltokiak ere aldatuko dira. Beraz, lehen Obieta-Txinboak. Obieta-Txorierrri. Obieta (metroa) zena, orain, Gernika (jolas parkea). Legazpi (Santi Brouard plaza) izango da. Azkenik, aparkaleku alternatiboa jarriko dute Bekoa ikastetxean.

FAXISMOAREN AURKAKO EGUNA EGINGO DUTE ASTRABUDUAN

Ekainaren 20an Faxismoaren Aurkako Eguna ospatuko dute Astrabuduan. Sare Antifaxista topagunean biltzen diren Uribe Kostako, Ezkerraldeko eta Bilboko kolektibo antifaxistek makina bat ekintza antolatu dituzte egun horretarako: 1936 eta 1939 bitarteko faxismoaren aurkako gerrari buruzko erakusketa, musika antifaxista, bideoen emanaldia... Gainera, hainbat material antifaxista jarriko dute salgai: txapak, bideoak, musika, kamisetak, etab.

UR SAREA BERRIZTATUKO DU UDALAK

1.400.000 euro inbertituko ditu Udalak ur sarea berriztatzeko. Lanek bost urte iraungo dute eta Udal Sareak enpresak burutuko ditu. Behin konponketak amaituta, hamar urtez sistemaren mantentze-lanak dohainik egingo duela agindu du Ur Patzuergoak. Lanen zailtasuna dela-eta, proiektuak fase ezberdinak izango ditu eta dagoeneko Altzaga auzoan hasi dira.

Arasa
Sukalde eta Komunitararako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberriak eta dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Basolanak
• Zuhaitzen landaketa
• Podak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

ARLAN

Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

BEHARGINTZAKO BULEGO BERRIA

Behargintza Enplegu Zentroaren kudeaketa beregain hartzeko lehen pausua eman du Udalak; izan ere, proiektua abian jarri ahal izateko, Imanol Garai alkateak zuzenduko duen ikerketa batzordea eratu du. Beragaz batera, alderdi bakoitzeko ordezkari bat izango da taldean. Gaur egun, Uribe Kostako Mankomunitatearen ardura da Behargintza.

HONDARTZETARA JOATEKO AUTOBUSA

Ekainaren 17tik aurrera, eta urtero legez, hondartzetara joateko autobus zerbitzua, "Sopelbus", jarriko du martxan udalak. Erabiltzaileek Creditrans txartela erabili ahal izango dute bidaiatzeko, beraz, metroz hurbiltzen direnek errazago izango dute. Zerbitzuak 10:00etatik 20:00etara funtzionatu du, 20 minutuko maiztasunaz (14:00etatik 15:00etara gelditu egingo da). Autobusak ibilbide bi egingo ditu: Urbasotik Atxabiribilera eta Larrabasterratik Barinatxera zein Arrietarara. Seme-alaba ugariko familiek laguntzak jasotzeko aukera izango dute.

BIDAIA BAT ZELAN PRESTATU

Ekainaren 21ean, 19:00etan, oporrak antolatzerakoan kontuan hartu beharreko alderdiak azaltzeko hitzaldia emango dute Udaleko Hallele. Hau azaltzeko, Mexikotik Buenos Airesera egindako zortzi hilabeteko bidaiari hartuko dute oinarritzat.

foto xabier argazkiak

- ezkontza erreportajeak
- estudio eta argazki industrialak
- kopiak ordu batean: negatiboak, diapositiboak, CDak, disketeak, txartelak...

T&F: 94 676 03 09
E-mail: saitua@terra.es
Doctor Landa, z/b SOPELA
www.fotoxabier.com

Atxabiribileko aparkalekua Zientoetxe inguruan 2.400 m koadroko gunean aparkatzeko 100 leku ipiniko ei dituzte



Atxabiribil hondartzako aparkalekua

Sopelako Udalak, eginiko hainbat azterketen arabera, Atxabiribil hondartzako aparkalekua txiki gelditu dela ondorioztatu du. Horri konponbidea emateko proiektuak egon badira ere, Udalaren esanetan orain arte ezin izan dituzte gauzatu "beste erakunde baten laguntza barik zenbateko ekonomikoa handiegia zelako eta horrez gain, hainbat proiekturen kontrako iritziak egon direlako". Udaletik adierazi dutenez, garraio publikoa erabiltzearen aldeko zenbait ekimen ipini dituzte martxan, berbarako, uda garaiko Sopelbus zerbitzua, alabaina, "ez da nahikoa izan". Horregatik hurrengo egitekoa bideragarritzat jo dute: Zi-

entoetxe inguruan, Mari-Zuri etxebizitza gunearen aurrez aurre, 2.400 metro koadroko azalera batean, batera moduko aparkalekuak ipiniko dituzte. Batez beste 100 biribilentzako lekua egongo da eta aparkatzea dohakoa izango dela azaldu dute. Udalak egitasmo hau hondartza denboraldi honetarako abian egotea espero du.

Bestalde, PTP egitasmoak (Lurraldeko Plan Partziala) Itsasertzeko Parke deitu duen babesgunea bermatuko dutela jakinarazi dute Udal Gobernutik, eta irizpide horren kontra doan edota berdeguneen edo zuhaitz-guneen kalterako posturirik ez dutela garatuko. m

San Pedro jaiak

Sopeloztarrak eta **jai giroa** buztarturik egongo dira hilaren 25etik uztailearen 2ra



Pirritx eta Porrotx herriko plazan egongo dira hilaren 28an

Domeka baten hasiko dira aurten San Pedro jaiak, hilaren 25erako igarri duten gazte mailako txirritulak lasterketaz (16:00). Ostean, Itzartu elkartereko antzerki taldearen "Comicas atribuladas buscan obra" lana egongo da ikusgai (Kultur Etxea, 19:30). Hilaren 28ra arte atsedean laburra hartu eta gero Pirritx eta Porrotx pailazoan ikuskizuna iragarri dute (Plaza, 19:30), eta koadrilen jaitsiera amaitutakoan botako dute jaiak benetako hasiera emango dion

«Txupina eta pregoia hilaren 28an botako dute gaueko 9:00etan»

txupina eta pregoia. San Pedro eguna txistulari, trikitilari, dantzari eta musika bandakoen kalejirak iratzarriko du, eta batzuk mezatarako prestatuko dira. Hileko azken egunean aipatzekoa da paint ballera olgetako eta looping bike egiteko egongo den aukera (Zipiriñe). Eta uztailearen 1ean eta 2an jolas parkea paratuko dute Zipiriñen eta udaletxe inguruan Zirri Marra elkarteren pintura erakusketa... Eta beste hainbeste ekitaldi. m

Ekitaldi batzuk

EKAINAK 29, eguena

- Pelota txapelketa. Finala. Frontoia. 18:00.
- Oliver magoa. Plaza. 18:00
- Arantza ta Pantxo. Erromeria. Plaza. 20:00.
- Habeas Corpus, Bioterror. Txosnak. 23:00.

EKAINAK 30, barikua

- Bodyboard erakustaldia. Arrietara. 10:00.
- Batukada ikuskizuna. Plaza. 20:30.
- Esku Pelota partidak. Profesionalak. Galarza V-Laskurain vs. Chafee-Urberuaga. Titin-Barriola vs. Irujo-Eulate. Frontoia. 22:00.
- Muted, Urgabe, Biok, Trikizio. Plaza. 00:00.

UZTAILAK 1, zapatua

- Bitsaren jaiak. Zipiriñe. 13:00.
- Herri bazkariak. Nagusia Jubilatuen Etxean (14:00) eta bestea txosnetan (14:30).
- Briska txapelketa. Kultur Etxea. 17:00.
- Kiki Koko pailazoak. Zipiriñe. 20:00.
- Giramundo. Ikuskizuna. Udaletxea. 21:30.
- Bizargorri. Berbena. Plaza. 00:30.
- No Drama, Nun, Al Jashiera. Herriko taldeak. Txosnak. 00:30.

UZTAILAK 2, domeka

- Makailo txapelketa. Udaletxea. 10:00.
- El pisito. Kale antzerkia. Udaletxea. 20:00.
- Sardinada. Txosnak. 21:30.

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

01 SOPELNET S.L.

Jokoak sarean •
Txapelketak • Internet •
Txat • E-mail • Lanak •

ordenagailuen salmenta
zerbitzu tekniko
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

☎ 94 676 00 62- Fax:94



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email: sopela@ikastola.net

LAIKAK Taberna

San Pedro zoriontsuak!

Bentatxu, 2
48600 Sopela

ALKATEAK DIMITITZEA ESKATU DU EB-K

Miren Dobaran (EAJ) Berangoko alkateak dimiti dezala eskatu du Koldo Martinez EBko zinegotziak, 10 hilabetez ez duelako udalbatzara deitu. Araudiaren arabera, bi hilean behin antolatu behar ditu batzarrak, beraz, auzia epaitegiara eramatea pentsatzen dabil EB. Zinegotziak jakinarazi duenez, ez die Udaleko gainerako alderdiei hartutako erabakien berri ematen eta horretarako eskubidea dutela gaineratu du. Udalbatzak 19:00etan izaten dira eta Dobaranek ordu horretan bere seme-alabak zaindu behar zituela esan zuela dio Martinezek. Arrazoi hori zentzugabekotzat jo du EBko politikariak.

JIRAFEN KALEJIRA EGINGO DUTE SAN JUAN BEZPERAN

San Juan sua egingo duten lekuraino jirafen kalejira antolatu dute ekainaren 23rako, San Juan bezperarako. Kalejirari Berangoeta kultur etxean emango zaio hasiera, 20:00etan. 21:00etan, berriz, Sanjuanada Txiki eta txokolatada egingo dute Lantzarte parkean. Jarraian, San Juan sua piztu eta txahalki errea eskainiko dute euro baten truke. Amaitzeko erromeria egongo da.



Erdi Aroko azoka ospatuko dute hileko azkenengo aste-akabuan Moreaga parkean



Erdi Aroko magia, usainak, jantziak, bizilagunak... gehienek egingo dute topo Berangon ekain amaieran

Ekainaren 24an eta 25ean ospatuko dute aurten Erdi Aroko azoka Berangon.

Moreaga parkea Erdi Aroko bizimoduaren, egoeren eta gertaeren ispilu bihurtuko da 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 22:00-etara. Lehenengo eguneko eguerdian noble-jatorriko handikiek azoka zabaltzeko baimena eta herri xehari ongi etorria eman ostean, malabareen ikuskizunagaz harrizko aukera egongo da. Ondoren hainbat lantegi ezagutzeko zein horietako batzuetan parte hartzeko aukera izango dute bertaratu direnek, eta belarriak beteko dizkiete erromantzeetako kontuek. Arratsaldean, izurrudunak, legenardunak eta penitenteak

agertuko dira azokatik, juglaren kantuak entzungo dira, arku jaurtiketan trebatzeko lantegiak eta bestelakoak ere antolatuko dituzte eta eguna amaitzeko su ikuskizunak egongo dira. Hurrengo egunean, goizez lantegiak, malabare eta akrobazia erakustaldia, antzerkia... egongo da ikusgai eta gozagai. Arratsaldean, amodio-kontuetako bitartekari "sorginak" izango dira protagonista, konjuru edo araoak egiteko esakuneak etab. eginez, ez dira faltako lantegiak, orduko pertsonajeen bisita, suzko animak, suzko ikuskizunak... Erdi Aroko magia, usainak, jantziak, bizilagunak... gehienek egingo dute topo Berangon ekain amaieran. m

Akaitze Kamiruaga > Labayru Ikastegikoa

"Hiztegian bizkaierak batuari egin leion aportazioa adierazo gura genduan"



Akaitze Kamiruaga, Labayru Ikastegian

**Ekimen pribatuz sortu zan eleizbar-
rutiko Labayru Ikastegiak (1970)
euskara eta euskal kultura jaso,
eguneratu eta horien gaineko
zerbitzua eskaintzea dauka helburu.
Berton beharrean 10 urte daroaz
Akaitze Kamiruaga filologo urduliz-
tarrak, batez bere Etnografia arloan.**

—Zein da zure eginbeharra Labayrun?

—Etnografian egiten dogu Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. On Jose Miguelek (Barandiaran) prestatu eban kuestionarioa erabiliz datu piloa biltzen dogu, gai diferente-takoak. Orain arte kaleratu doguz "Juegos infantiles", "Ritos de paso", "Medicina popular"... Erdaraz dira, nahiz eta inkestak leku askotan euskaraz egin; adb. Urdulizen. Baina lan desbardinatan ibili naz, hizkuntza arloan bere bai. *Labayru Hiztegia, bizkaiera eta batua (b)uztarturik* atara genduan, eta orain atara da gaztelera-euskarazkoa.

—Ze zaugarri berezi daukaz hiztegiak?

—Urte askotako lan itzela izan da, hasikerako proiektua gero eta handiagoa egin zalako. Ezaugarri nagusia bizkaiera-batua "bereizketa" da, gura doguna da bizkaierak batuari egin

leion aportazioa adierazo; euskalki bakotzak badaukaz bere berezitasunak eta aberastasuna eta aprobetxatu behar doguz. Ahalegin berezia egin dogu bere ahozko hizkera jasoteko, jaso ezean galdu egingo dalako. Beste helburu bat izan da bizkaieraz idazteko arauak finkatzea. Hurrengo asmoen artean dagoz ataratea hiztegi biak tomo batean, eskola hiztegia, hiztegi fraseologikoa (lokuzinoak, esakera zaharrak...)

—San Juan ate joka dago, ohitura hori...

—Askotan jatorria-eta jakitea ez da erraza. Kasu honetan, esan leiteke Kristautasunaren aurrekoa dala eta Europan bere ospatzen dala. Udako solstizioagaz lotzen da, udaren etorrera ospatzeko. Esaten zan egun horretan Eguzkia dantzan urtetzen zala, eta joaten ziran mendi puntetara-eta hori ikusteko. Batez bere 3 elementu dagoz ospaki-

**«San Juanetan
sua, ura eta landarak dira
erabiltzen diren elementuak»**

zunetan: sua, ura eta landarak. Herri jakituriak edo sineskerak dinoenez, sua indar barrizalea da eta Eguzkiagaz lotuta dago; gaixotasun, begizko, sorgin... txarraren babesleak dira biak. Suaren gainetik salto egiteko ohitura baegoan (eskualdean ez dot holan batu), errezitatu bereziak egitea... Batez bere San Juan azaleko gaixotasunakaz lotuta dago. Egun horretako urak bere indar berezia dauka; goizean ortozik edo biluzik ibiltzen ziran garoaren gainean, ur hori gorputzean hartu eta urte osorako babestuta egoteko. Landarek bere indar berezia hartzen dabe, sendabelar bihurtzen ziran. San Juan sorta (lizar, arto errama, larrosak...) iminten zan ate baztarretan, ekaitzetatik babestuteko. Nafarroan eguzkiloa iminten da. Babesa eta indarbarritzea da helburua beti. Beste ohitura batzuk bada, adb. enbor bat imintea plaza erdian, goian txotxongilo bategaz, gero erretzeko...

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
didakhilton@euskalnet.net



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



cianoplan Reprografía

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Ariguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
http://www.cianoplan.es

Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •

Fotokopiak kolorez eta z/b •

Era desbardineteako koadernaketak •

Plastifikazioak •

Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •

ermarkaketak •



SAN JUAN JAIK LASTER BARRIKAN

Barrikako jaiak, sanjuanak, ekainaren 17an hasiko dira Atxutegi zelaian egingo diren hiru futbol partidagaz eta txirrindulari lasterketaz. Hurrengo egunetan, eta ekainaren 25era arte, makina bat ekintza antolatu dituzte herrian: fanfariak, margo lehiaketa, haurrentzako parkea, sukalkia, nekazaritza eta artisautza azoka, antzerkia... Egun potoloa ekainaren 24an izango da. Eguna txistularien kalejiragaz hasiko dute barrikarrek, 11:30ean. Eguerdian, 14:00etan, herri bazkaria egongo da eta dantzaldia Galea orkestraren eskutik. Arratsaldean, ludoteka egongo da umeentzat eta gauean The Remakes taldearen kontzertua, su ikusgarriak eta diskoteka.

ITSAS-MAILAKO LEHENBIZIKO LASTERKETA EGINGO DUTE URIBE KOSTAN

Itsasoko mailan egingo den lehenbiziko lasterketa antolatu dute ekainaren 25erako Uribe Kostan. Zehazki, Sopelatik, Getxotik, Barrikatik, Plentziatik eta Gortiztik igaroko dira parte hartzen duten korrikolariak. Lasterketa Areetako Txurruka kaian 9:30ean hasi eta Gorrodatxe zein Barinatxeko labarretatik igaroko da. 27 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte-hartzaileek eta Ernuamendi igo beharko dute.

Informazio gehiago: www.kostatrail.com

GORLIZ

Andra Mari Axpen auzo berri bat sortuko dute



73.887 metro koadroko azalera hartuko du auzune berriko urbanizazioak

Andra Mari Axpe inguruko urbanizazio egitasmoa onartu du dagoeneko Gortizko Udalak. Azaldutakoaren arabera, inguru horretan lekutzen den San Jose auzoa biziberritzea edota zaharberritzea da egitasmo honen helburu nagusietako bat.

Auzune barriaren urbanizazioak guztira 73.887 metro koadroko azalera hartuko du; 9.486 metro koadro berdeguneek eta oinezkoentzako guneek osatuko dute Udaletik jakinarazi dutenez, 1.724 metro koadro irakaskuntza-zentroetarako erabiliko dira eta

4.013 metro koadro kirol azpiegiturarako banatuko dituzte.

Lanok amaitzen dituztenean, hurrengo fase batean, aurre-azterketa batek aurreikusituen duenez, 125 etxebizitza eta adosatu eraikiko dituzte. Ondorioz, gutxi gorabehera 500 auzotar berri izango lituzke Andra Mari Axpeko auzune berriak.

Hasieran azaldutako urbanizazio lanak gauzatzeko epea urte bat ingurukoa da eta horretarako bideratuko duten aurrekontua 3.227.204 eurokoa. m

Ekai. 17 - uzt. 2

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

▶ **Alberto Palomeraren margolanak.** Josu Murueta kultur etxea. Ekainaren 21etik 30era arte.

GORLIZ

▶ **Zirkoa eta txotxongiloak.** Erakusgela. Ekainaren 20tik uztailaren 2ra arte. 17:30-20:30.

GETXO

▶ **Antzezaleak Elkarteko Ikasleak.** Algortako erakustaretoa. Ekainaren 19tik 30era arte. 10:00-13:00 eta 18.00-21:30.

PLENTZIA

▶ **Araldiko eskulan eta ehazirik.** Goñi Portal. Ekainaren 16tik 30era.
▶ **Goñi Portaleko jostura taldea.** Goñi Portal. Ekainaren 16tik 30era.
▶ **Ana Ansotegiren margolanak.** Goñi Portal. Ekainaren 19tik uztailaren 2ra arte.

ZINEMA

PLENTZIA

▶ **Las aventuras de Bongo, Mickey y las Judías Mágicas.** Umeentzako zinea. Goñi Portal. Ekainak 17, zapatua. 18:00.
▶ **Señora Beba.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Ekainak 23, barikua. 22:15.
▶ **Rebote.** Gazteentzako zinea. Goñi Portal. Ekainak 24, zapatua. 18:00.
▶ **El niño.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Ekainak 30, barikua. 22:15.

ANTZERKIA

ERANDIO

▶ **El acontecimiento.** Kaleko antzerki



▶ Argazki erakusketa

J. M. Horna: Round Jazz/Jazzaren inguruan

Jose Manuel Horna argazkilaria lana erakutsiko dute Algortako Satistegi kafetegian, ekainaren 26tik uztailaren 3ra. *Round Jazz* izenburua jarri dio argazkilariak 30 argazkiz osatutako bildumari. Jazzaren munduari eskaini dio Hornak bere ibilbide profesional osoa. Izan ere, *Bilbaina Jazz Club*, *Cuadernos de Jazz* eta *Jazz Hot* aldizkarietan behar egiteaz gain, hainbat argitalpenetan kolaboratu du: *JazzTimes*, *Gran Bilbao*... Horrez gain, diskoetarako argazkiak atera izan ditu; besteak beste, *Simple Acoustic Trio* eta *Music for Ebbe* lanei irudiak jarri dizkie. Aurretik, hainbat erakusketa eginak ditu argazkilariak: *Kultur Jazz-93* (Basauri, 1994), *Jazzografías* (1995-1998) eta *Quintet* (1998).

• **Non:** Algortako Satistegi kafetegia • **Noiz:** ekainak 26 - uztailak 3

ikusizuna. Erandio Goikoa. Ekainak 17, zapatua. 19:00.

▶ **Giramondo.** Irailaren 23a plaza. Ekainak 23, barikua. 19:30.
▶ **Pulgarcita.** Josu Murueta kultur etxea. Ekainak 28, eguaztena. 18:30.

LEIOA

▶ **Amor... y otros pecados.** Javier Veiga eta Ana Rayo aktoreak. Auditorium. Ekainak 24, zapatua. 20:00 eta 22:30. Sarrera: 15 euro.

BESTEAK

BERANGO

▶ **Bike Trial Show.** Mountain bike erakustaldia. Eskola. Ekainak 17, zapatua. 20:00.
▶ **San Juan sua.** Jirafen kalejira. Sanjuanada txikia, txokolatada, erromeria, txahalki errea... Berangoeta kultur etxea. Ekainak 23, barikua. 20:00.
▶ **Erdi Aroko Azoka.** Moreaga parkea. Ekainak 24 eta 25.

12:00-14:00 eta 17:00-22:00.

ERANDIO

▶ **Euskal selekzioaren III. Jaialdia.** Mendi plaza. Zarpantzararak, herri-bazkaria, koadrilen arteko herri-kirol lehiaketa... Ekainak 17, zapatua.
▶ **Lubaki Txikiko San Kristobal Sari Handia.** Modalitatea: robota. Akarlanda. Ekainak 17, zapatua. 11:00.
▶ **Areto Futboleko Euskal Kopa.** Finala. Astrabuduko kiroldegia. Ekainak 17, zapatua. 16:00.
▶ **Musikaren Europako Eguna.** Musika taldeak eta abesbatzak. Irailaren 23a plaza. Ekainak 21, eguaztena. 19:30an.
▶ **Kukularrako jaiak.** Ekainaren 23tik 25era.

GORLIZ

▶ **Pala eta frontenis maratokia.** Udal Frontoia. Ekainak 24, zapatua.
▶ **Iberreko Jaialdia.** Dantzaldia, sardinada, mariatiak... Ekainak 25, domeka. 19:00.

BARRIKA

▶ **San Juan Jaiak.** Ekainaren 17tik 25era arte.

GETXO

▶ **XIII. Getxotar Dantza Eguna.** Getxo Antzokia. Ekainak 17 eta 18. 12:30 eta 19:00.
▶ **Gorputzi Eguneko Jaia.** Algortako Etxetxu plaza. Ekainak 18. 12:00.

URDULIZ

▶ **Umeentzako dantzaldia.** Antsonekoa plaza. Ekainak 23. 19:00-21:00.
▶ **Zirko tailerra.** Antsonekoa plaza. Ekainak 24. 11:00-14:00.

LEIOA

▶ **Korrontziren kontzertua.** Auditorium. Ekainak 21, eguaztena. 20:30.
▶ **San Juan jaiak.** Ekainaren 22tik 25era arte.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Zirgarien beharra

XX. mendearan hasiera arte itsasontzi handietako zamak gabarretan arrastaka Bilboko porturaino eroaten zituzten emakumeak ziren zirgariak. Ogibide nekagarri hau zertan zen erakutsiko du Fernando Bernalek (ezkerreko argazkian) zuzendu duen film laburrak. Guk Plentzian harrapatu genuen lan taldea errodajearen buru belarri beharreen zebilela. Irailaren 10ean estreinatuko dute filma Areetan. Egun berean, eta urtero legez, Getxoko Jentilak elkarteak zirgarien lana erakusten duen antzezlan eskainiko du.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Erraldoia Getxon

Mikel Martinez

Ehunka lagun bildu ziren Algortako muturraren puntara
Queen Elizabeth II erraldoia ikustera. Zifrak zoratzekoak dira:
296 metroko luzera, 1.800 bidaiari, 1.000 tripulataile, 16 kubieta....
Gurutze-ontzi ikusgarria. Gutxiak jakingo du, berriz, Royal Navyk
itsasontzi hau Malvinetako gerrera soldaduak eroateko erabili zuela.

[berbetan]

Elgoibartarrak modan ditugu atal honetan. Orain hiru UK Gotzon Garate ekarri genuen, oraingoan Hasier Etxeberria, Gipuzkoako herri horretan 1957an jaioa eta gaur egun Hendaian bizi dena. Hori, nobela bat idazten ez dabilenean. Halakoetan nobelan bertan bizi da, bakar antzean. Baina ez dugu kinka horretan harrapatu; Etxeberriak atsedean aroa du hau, idazte kontuei dagokienez. Oraindik bero dago, egon, labetik atera duen azken lana: David de Jorgegaz elkarlanean ondutako *Porca memoria*. Gaztelaniaz, ohi ez duen bezala. Hori ez da ordea elkarrizketa hau egiteko erabili dugun aitzakia. Aitzitik, berbaldiaren hondarrean eduki dugu *Porca Memoriaren* berri. Espezializazio ezak -ez bakarrik, zoritxarrez- era horretako hanka-sartzeak eginarazten dizkigu lantzean behin. Seguru Sautrelako gidari eta aurkezleari ez litzaiokeela horrelakorik jazoko, bere buruari elkarrizketa egin behar balio. Bestela, zer esan Etxeberriaz ez dakizuenik? Aspaldidanik kazetari dabil ETBn, eta jende aurrean hiru obsesio aitortzeko moduan da: literatura, artea eta gastronomia. Hirugarrena da, bide batez esateko, *Porca memoriaren* gaia.

Hasier Etxeberria

Literatura mahai gainera

Testua: **Unai Brea**

—Sautrela garaian gagoz oraindik, ezta?

—Bai, uztailaren 1era arte.

—Izan ere, urteko sasoi batzuetan Sautrela egoten da eta bestetan ez. Zure bizi-erritmoa oso desberdina izaten da saioa egon ala ez egon?

—Bai. Ez dagoenean, astea albistegietan ematen dut, eta dagoenean egun bi ematen ditut albistegietan, eta beste hirurak letra artean. Lan handiagoa daukat Sautrela garaian, baina neu naiz nagusi eta neuk neurtzen dut tenpoa.

—Eta zeurea idatzi, noiz? Lantzean behin halakoetan ere ibiltzen zara eta...

—Bai, baina orain bertan aldi motel batean nago, gogaiturik bukatu dut hainbeste idaztetik. Azkeneko lauzpabost urtean asko idatzi eta argitaratu dut, eta momentu honetan sinatuko nuke gehiago ez idaztea. Baina badakit ezinezkoa dela. Idazlea naiz, badatokit istorioak eta istorio horiek hankarekin zapaltzen saia-

tzen naiz, ez dezaten bururik altxa, baina... Etorriko dira.

—Euskal literaturak, bere txikian, ematen du behintzat Sautrela lako saio batek irauteko, ez dakit zenbatgarren urtez dagoeneko...

—Zazpigarrena aurtzen... Batzuetan errepikatzen dira, badira idazleak bi eta hiru aldiz agertzen direnak gurean, baina ez

“Orain sinatuko nuke gehiago ez idaztea, baina hori ezinezkoa da”


dut uste horregatik ezer gertatzen denik, futbolariak astebururo agertzen dira. Bai, ematen du, eta alde horretatik putzu infinitoa da, esan nahi dut gaiak unibertsalak direla; nahiz eta gurea literatura txikia izan, erabiltzen dituen gaiak unibertsalak dira. Eta hori bukaezina da. Geu ere, programa egiten dugunok, irakurleak gara, eta hori adierazi nahi diogu irakurleari:

bera bizi den munduan ez dela bakarra.

—Orduan, sautrelagile zabiltzanean, irakurle begirada gailendu egiten zaio idazle begiradari?

—Bai, baina idazlea naizenean ere irakurlea naiz batez ere, hori ez da ahaztu behar. Eta Sautrela... nire idatziak, esaterako, ez dira inoiz aipatzen saioan, debekatuta dago etikoki. Gertatu izan da norbait eto-

rri izana, eta “zer liburu gomendatuko zenuke” galdetuta, nik idatzitako *Bost idazle* erantzutea. Eta nik: ezin da. Nola ezin dela? Ezin da ni Sautrelan irakurlea naizen aldetik. Baina ezin da ekidin, kolegak dira azken batean, ez naute irakurle soil bezala ezagutzen, idazle eta saltsero bezala ezagutzen naute. Esan nahi dut beti ezagutu nautela hemen, telebista egi-



ten badaramat 25 urte edo ez dakit zenbat, eta hori baino lehen ere banintzen mundu horretakoa. Badirudi beti egon naizela paisaje honetan.

—Aurrekoagaz segituz, Sautrelaren hutsetakoa bat da, hain zuzen, Hasier Etxeberriaren lanen barri ez emotea...

—Ez da dotorea, ez gizalegezkoa, ez etikoa. Zer irabaziko nuke? Ezer ez. Dena dela, besteek egiten dizkirate elkarriketak; oraintxe bertan zu ari zara.

—Jakina. Hala ere, askotan literaturan espezializatu gabeko kazetariak egingo dizkizute elkarriketak; oraintxe bertan neu ari naiz, hain justu. Sarritan egokitu-ko zaizu horren ondorioak jasatea...

—Bai, gehienetan nabaritzen da, batez ere liburu bat argitaratutakoan: liburu irakurri gabe etortzen zaizkizu elkarriketa egitera. Eta norberak nahi du galdetzaileak beraren lan hori ezagutzea, ea zer iruditzen zaion. Azken batean hori da idazleon funtsa (eta artista guztion): ea parean daukagun horri zer iruditzen zaion gure lana. Horren falta bai sumatzen dut, baina eguneroko lanak ez du uzten. Erotzekoa litzateke dena ikusita eta dena irakurrita joan behar balu jendeak elkarriketak egitera. Gu Sautrelan saiatzen gara, e?

—Horretxetaz itaundu behar nizun ba...

—Gu dena irakurtzen saiatzen gara. Noizbait zerbaitek ihes egin digu; batzuetan saio bat ez, bi grabatu behar izaten ditugu, eta inoiz hiru ere bai. Eta ezinezkoa da noski hor darabilgun material hori guztia astebetean edo hamabost egunetan irakurtzea. Eta askotan gertatzen da gure ezaguerak esku artean daukagun liburu horretan daukala muga. Baina egilea daukagu aurrean, eta egile horrek baditu hogeit hamar idatitza agian. Jakina, ezinezkoa da den-denak irakurtzea. Saiatzen gara pertsona bat datorkigunean bere bizpahiru liburu irakurtzen nik eta taldeko beste batek beste bizpahiru, gero argitaratzaileari eskaten dizkiogu dauden elkarriketak, Google-en begiratzen dugu zer dagoen egile horri buruz... Horrela ilus-

tratzen gara.

—Inoiz suertatuko zaizu derrigortuta irakurri behar izatea batere atsegin ez duzun liburu...

—Bai, eta tortura txinatarra da. Baina gu ez gaude geure gutizia egiteko, euskal telebista nazionala gara eta behartuta gaude gremio guztiaren erakusleho izatera. Maite ditugunak eta maite ez ditugunak, denak agertu behar dira. Eta gero trantze gogorra izaten da, normalean idazleak ni

“Nobela kobazuloa da, eta idazteko, koba barruan bizi behar duzu”

ezagutzen nauelako, eta beti galdetzen dit: zer iruditu zaizu? Kamerinoko parte hori oso gogorra izaten da.

—Sautrelak bere lekuari eusten dio ETBn. Ez dakit oso leku duina den ala ez, baina nago inguruko telebistetan baino hobeto dagoela literatura ETBn, Espainiakoetan baino hobeto behintzat. Zu Hendaian bizi zara eta Frantziakoak ikusteko aukera ere badaukazu...

—Frantziakoarekin ezin da konparatu. Han prime time-an daukazu oso saio garrantzitsuak. Frantzia horretan Frantzia da, munduan literatura kontsumo handiena daukan herrialdea. Batak dakar bestea eta besteak dakar bata, hori urteetako tradizioa da. Beraz, Frantziako kasua oso des-

“Ez litzateke etikoa izango Sautrelan nire liburuak aipatzea”

berdina da. Espainiakoarekin alderatuta, tira ba... Ez nuke halako zer batean sartu nahi ere, baina tira, niri gehiago gustatzen zait Sautrela Espainian ikusten ditudan beste hainbat saio baino...

—Google erabiltzen duzuela esan duzu lehen, eta guretzat ere ez da arrotza tresna hori. Zure izena bertan sartu, eta titular hau topatu dugu orain gitxi egin dituzten elkarriketa batean: “Nik beti pentsa-

tu izan dut ipuingilea naizela”.

—Bai, hala da. Nobelak, saiakerak... egin ditut, baina beti izan naiz ipuinzailea. Hiru, lau edo bost nobela idatzi dut, baina ipuin-liburuak ere egin ditut, bi edo hiru. Ipuina niretzat oso genero maitea da, eta ipuingileak oso maite ditut: Borges, Kafka bera... Eta gurean ere ipuingile handiak ditugu. Ipuinek plazer handia eman didate irakurlea naizen aldetik eta sortzailea naizen aldetik ere bai. Bestalde, abantaila

praktiko bat dute: bizimodu honekin oso zaila da nobela bati heltzea...

—Idazle modura, esan gura duzu?

—Bai. Zeure bizitza utzi behar duzu, eta nobelaren baitan bahiturik bizi behar duzu amaitu artean. Eta hori ezin da beti egin, laguntza behar duzu horretarako, zure etxekoan laguntza. Aldiz, ipuin bat kontrola dezakezu. Esan dezagun ipuina basa-zaldia dela, eta nobela kobazuloa. Eta kobazulotik irten artean, koba barruan egon behar duzu. Zaldia, berriz, batzuetan menderatzen duzu... desberdinak dira eta biak gustatzen zaizkit. Zentzu horretan nioen ipuingilea naizela.

—Zure azken nobela bietan pertsonaia nagusia errepikatu duzu...

—Bai, Damian Arruti entomologoa.

—Entomologoa!

—Behar nuen hilotzei data jartzen dien tipo bat, bertan bizi diren intsektu eta akaroen arabera. Eta hori da Damian Arruti, oso tipo sinpatikoa bestalde.

—Nobela gehiagotan ikusiko dugu?

—Argitaratzaileak hala nahi luke, baina nik esaten diot momentuz ondo nagoela holaxe. Orain uda dator eta nahiago nuke

Damian agertuko ez balitz ate baten atzetik. Baina ari da agertzen, uste dut orain unibertsitatera itzuliko dela zoologia eskolak ematera, eta Bilbo aldean zerbait gertatuko zaio seguraski. Ez dakit, berari galdetu beharko zaio. Nik nahiago nuke gelditu egongo balitz.

—The Da Vinci codeaz itaundu gura nizun...

—Ba ez dakit ezer, erosi nuen baina ez dut irakurri, emazteak hala gomendatuta. Hainbeste dago aukeratzeko! Eta aukeratzaren hasita, sibaritak ere izan gaitezke. Orduan, nire menuan ez da horrelakorik sartzen oraingoz.

—Eta tentaziorik eduki duzu inoiz ondo salduko den zerbait idazteko? Hau da, seguru dakizuna ondo salduko dela...

—Nire azkeneko lana, lagun batekin espainolez egin dudana, best seller bat da,

baina inor ez da konturatu oraindik (barre). Porca memoria dauka izena eta RBAk argitaratu du, argialetxe handi batek beraz, asko saltzeko asmoz. Borondate horrekin eginda dago, baina horrek ez du esan nahi gezurra denik. Liburu ona dela uste dut, liburu zintzoa, baina iristeko helburua ere badu.

—Gaztelaniaz idazten zelan ibili zara?

—Ondo. Espainolez ere badakigu, ikasi egin dugu edo ikasrazi egin digute, ez dakit nola esan, eta ondo dago. Baina liburu honek funtzionatzen ez badu, ez dut gehiago egingo. Nire mundutxoan euskarari dago, eta bestea noizbehinkako ariketak dira.

—Lehen menu berba aipatu duzu, eta horrek emongo dit sarbide polita azken itaunerako: nondik datorkizu gastronomiarenganako zaletasuna?

—Gustatzen zait eskuekin gauzak egitea, eta hor ere sartzen da sukaldea, ikasle garaiko aurkikuntza haiek, hutsarekin egindako platerak... Gero, bizitzaren zori horietako batek eraman ninduen, telebistan sartu bezain pronto, euskal sukaldaritza berriaren hastapena oso gertutik ikustera. Dena dela, nire existentziarako, eta lanerako, badaude hori baino gauza inportanteagoak: literatura, artea... Nahiago ditut horiek nire lanbidearen edukizat. Baina ez dut sekula beste arlo hori alboratu, beti gustatu zait sukaldean egotea. Eta lagunak hartzea etxean, eta besteen etxetara joatea honetaz eta hartaz hitz egitera ardo gozo bat edanez. Bizitzaren zati handi bat mahai baten inguruan joaten zaigu. Zergatik ez dugu hori zainduko? m

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

UK Uribe Kostako Aldizkaria
 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
 tel.: 94 491 13 37



Barre algarak Leioan

Ekainaren lehenengo egunetan Leioako bazterrak hartu zituzten kale artistek. Frantzia, Holanda, Peru, Argentina, Britainia Handia... makina bat lekutatik gurera etorritako artistok ikusleen gozamenerako 150 ikuskizun eskaini zituzten Umore Azokak iraun zuen lau egunetan zehar. Oso arrakastatsua izan da zazpigarren azoka hau: 25.000 ikusletik gora, ia 150 kultur programatzaile... Nahitaezko erreferentzia gune bihurtu da Leioa kale ikuskizunen arloan.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**









zineeskola

Oskar Fernandez

Egile-zinema (II)

Jarrai dezagun zutabetxo honetan aurreko gaiarekin, zer den egile-zinema, ahal den neurrian kontzeptu hori argitzeko eta sakontzeko. Has gaitezen Wikipediak aipatu kontzeptu horri buruz diotenekin: egile-zineman zuzendariak garrantzia handia dauka normalean, filma berak idatzitako gidoian oinarritzen baita eta ekoizle etxe komertzial handiek jartzen dituzten mugak eta presioetatik at egoten baita. Honek askatasun askoz handiagoa ematen dio bere sentimenduak eta nahiak nahi duen moduan adierazteko (<http://es.wikipedia.org/wiki/Portada>). Ikus dezagun orain adibide paradigmaticoa, zinemaren historian, zalantzarik gabe, gehiago daude baina Stanley Kubrickena oso egokia da, oso zinema zuzendari gutxi edukitu dute-eta berak nahi zuena egiteko izan zituen ahalmena eta kemena. Kubrickek pantailara eramane nahi zuen gaia askatasun handiz aukeratzeko. Gai hori beti eleberrin baten bidez gorpuztu egiten zen. Berak gidoiaren garapenean parte hartzen zuen eta bere filmen ekoizlea ere bazen. Muntaketa egiterakoan bere iritziak, nahiak eta ikuspuntuak ezinbestekoak ziren. Berak aukeratzeko zituen istorioen kokapenak, bere onspena nahitaezkoa zen dekoratuak egiteko, argiztapenaz arduratzen zen, azken finean, berak erabakitzen zuen eszenak nola argiztatu, behin baino gehiagotan kamara ere berak erabiltzen zuen. Zuzendari artistikoen lana bere eskuetan zegoen.

Zuzendari bikain eta maisu handi honek pelikulen prozesu osoa kontrolatzen zuen: aurreko produkzioa, produkzioa eta postprodukzioa. Bera eta bere lan ikusgarria, interesgarria bezain izugarria zinemagintzan salbuespen hutsa da. 4

Zirgariei gorazarrea

Gurean **andrazkoek** egindako lanbide gogorraren **historia** film labur batean batu dute

Eskualdean ezaguna dugu aspaldiko zirgarien jarduna, besteak beste, Areetan egiten den "Zirgariak" herri antzerkia arrakastatsuen birtatez. Urtero Jentilak kultur elkarteak dauka antzezlan prestatzeko ardura, aurten ekimenari bultzada indartsuagoa ematearren film labur bat grabatu dute, euskaraz gainera. Horretarako, Bilbo Audiovisual kultur elkartea izan dute lagun, hala lanaren zuzendari legez jardun dute Elias Martínez de Lezeak, Fernando Bemalek "Ferber" eta Urko Olazabalek. Euren gidaritzapean 50 boluntario baino gehiagoko taldea ibili da beharrez, horietatik 15 inguru aktore lanetan, aurpegi ezagun batzuk horien artean, berbarako: Kontxu Odriozola, Nati Ortiz de Zarate edota gurean aurkezpenik behar ez duen Patxi Lazkano. 6.000 euroko dirulaguntza izan dute, baina Lazkanok berak aitortu moduan, "gauza batzuetan dohako laguntza

«Portu Zaharrean, Urdulizen, Berangon, Armintzan, eta Plentzian grabatu dute»

jaso badute ere, hori baino gehiago gastatu dutela esango nuke". Filma III. Karlitadaren garaian (1872-76) kokatzen da eta zirgarien ogibide latza kontatzen du. Itsasontzi handiak ezin ziren Bilboraino sartu orduan eta gabarrak erabiltzen zituzten merkantziak ibaian gora eroate-



Filmaren plano bat

ko. Gabarrak itsasertzetik soka bati tiraka eramaten zituzten, hasieran tiralarik idiak edo zaldiak ziren, gero gizonezkoak, baina gerra garaian gizonezkoak eta zaldiak frontean zeuden eta baldintza gogor haietan andrazkoek hartu zuten egitekoa euren gain. Bestalde, lekutzeak Portu Zaharra, Urdulizko errota zahar baten inguruan, Berangoko Sustatxa Zaharra baserrian, Armintzan eta Plentzianko itsasadarrean grabatu dituzte. Filma herri antzerkiaren egunean, irailaren 10ean, estreinatuko dute. Amaitzeko, zirgarien gaineko liburu bat ere prestatzen dabil antzerki laneko zein filmeko aholkulari historiko Imanol Barberia. m

Filmak > Hustle and flow



Drama musikal honek Sundance Zinemaldian arrakasta handia lortu zuen, izan ere, publikoak ematen duen sari garrantzitsua eskuratu zuen. Film honen ekoizlea, afroamerikar zinema zuzendari ezaguna eta ospetsua, John Singleton da. *Hustle and flow*, Craig Brewerek zuzentzen duen lehenengo filma da eta berak gidoia ere idatzi du. Memphis hirian kokatzen da istorioa, hiri honek bizirik irauten du; ohitura musikalak aldatu egin dira, gaur egun beltz gazteek rapa rocka baino gustukoagoa dute, baina lehen bezalaxe musikaren bidez haien eskubideak aldarrikatzen jarraitzen dute. Istorioko hainek beltzen komunitateak bizi duen egoera latza salatzen du: batzuek legearen eremutik kanpo dute bizimodua, beste batzuek sistemarekin dituzten desadostasunak adierazteko musika erabiliko dute.

Bat-batekoaren magia

Palmieri, Loockwood eta Cobham

izango dira XXX. Jazzaldiaren kartel buruak



Sarrerak: uztailak 1, 3, 4 eta 5 12 euro; hilak 2, 18 euro. Informazio gehiago: 94 431 92 80

Getxoko XXX. Jazzaldia emango dio hasiera EAEko Jazz Zirkuituari. Berez, Getxokoak badauzka besteetatik bereizten dituen ezaugarriak: Europar kutsukoa da batetik, eta talde gazteei eskaintzen dien aukera eta bultzada bestetik, horren adierazgarri dira talde lehiaketa (kontzertu nagusien aurretik jotzen dute lehiakideek; aurtengoak: Exit 418, Magnus Mehl Quintet, Jazz Kamikaze eta Martin Auer Quintet) edo Hirugarren Milurtekoa atala (Getxo Antzokiko plaza, 19:30). Kontzertu nagusien Biotz Alai plazako oholtzan (21:30) jarduten lehenengoak (hilak 1) Miroslav Vitous (munduko 3 baxu jotzaile onenetakoen artean dute askok) eta John Abercrombie (izar handien gitar jotzaile) izango dira. Hilaren 2an Eddi Palmieri pianista ospetsua-

ren jazz latindarra egongo da gozagai, Afro-Caribbean Jazz All Stars lagun dituela. Carles Benaventek (baxua), Tino Di Geraldok (bateria) eta Jorge Pardok (saxoa, flauta) osatutako taldeak hilaren 3an joko du. Hurrengo egunean Philip Catherine Trio & Charlie Marianok jardungo dute, eta azken egunean Didier Lockwood biolinista eta Billy Cobham bateria buru dituen String Quartet-ekoakaz gozatzeko aukera egongo da. Hirugarren Milurteko kontzertuetan, hurrenez hurren, hauexek jardungo dute: Albert Sanz & Organics, Karion, Tunyi, De Diego Brothers (Euskal Herria) eta Le Monde de Kota. Ezin ahaztu, ohiko Jam Sessionsak (Piper's Irish Pub), marching bandak, argazki erakusketa... m

diskoak

Sistema arrakalatu
Pin Pan Pun
Oihuka



Izena aldatzeaz gain, taldea eraberritu egin da goitik behera, Auok taldea gidatzen jarraitzen duen arren. Gainera, albo batera utzi dituzte aurreko diskoetako errotinoak, perkusioa, txalaparta... eta taldekideek hardcore, metala eta punkaren soinuen alde egin dute. Etsaiak 90eko hamarkadan jorratutako bidea oinarritzat hartuz. Disko berriak 11 abesti ditu, horietatik bi gazteleaz.

Riot City Blues
Primal Scream
Sony



Lau urte luzez estudioko diskorik kaleratu barik egon ostean, Bobby Gillespiek eta gainerako taldekideek rock doinuak berreskuratu gura izan dituzte berriro ere eta, azken aldiko kantu elektronikoek oraingo honetan lekurik izango ez duten arren, Erresuma Batuko mutilek musika munduan hasi zireneko garaiak ekartzen dizkigute abesti berriak gogora.

Orhiko xoria
Juan Mari Beltran
Elkar



Orain dela urte batzuk kalera-tu zuen Arditurri lanaren estilolari jarraituz, 15 kantu berri bildu ditu euskal musikariak azken disko honetan. Oraingoan ere, musika tresna tradizionalak hartu ditu oinarri moduan (txalaparta, txistu, txuntuna, alboka, eskusoinua, txirula...) eta, kantu tradizionalak lantzeaz gain, abesti berriak sortu ditu. Suso Saiz izan da produkzio lanetan.

kontzertuak >

Su Ta Gar eta Korrontzi



Ekainaren 16an, barikua, gaueko 22:00etan Su Ta Gar taldeak emanaldia eskainiko du Leioako Barandiaran institutu-uan. Talde mitikoak

bere azken diskoko abestiak eskainiko ditu eta sarrera dohainik izango da.

Bestalde, Korrontzi taldeak ere kontzertua eskainiko du Leioako Auditoriumean ekainaren 21ean, eguaztena, 20:30ean. Sarrera euro bikoa izango da. Antzinean Mungian igandero meza ostean jotzen zuen trikitilariaren izena, "Korrontzi", hartu dute musikariak eta musika zein irudien bitartez trikitilari zaharren ibilbideak omendu gura dituzte. Taldea gaztea bada ere, nagusie garai haiek gogora ekarri gura dizkiete eta gazteinei orduko jendearen bizimodua erakutsi.

jaialdia >

Pirineos Sur 2006

Guztira, 53 taldek eta artistek hartuko dute parte uztailaren 13tik 29ra arte Hueskako Lanuzan, Sallent de Gallegon eta Panticosan egingo den Pirineos Sur jaialdian. Aurten, festaren 15. urteurrena dela-eta, aurreko kontzertuetan parte hartu izan duten artista eta talde esanguratsuenak berreskuratu gura izan dituzte eta han izango dira, besteak beste, Khaled, Manu Dibango, Alpha Blondy, Ojos de Brujo eta Eliades Ochoa. Halere, aurreko urteetan legez, aurpegi berriak kontuan hartu dituzte antolatzaileek: Portugalgo Mafalda Arnauthek, Gineako Circus Baobabek eta Turkiako Mercan Dedek joko dute.

etorri
eta
ikusii!

LIBURUDENDA

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algortia

Bihotz Handi
Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza
uztailak 17

Erromoko kultur etxea
uztailak 20

Zatoz odola ematera,
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Onenetakoak euskaraz

Munduko literatura euskaratzeko proposamen berriak jakinarazi dituzte

1989an EIZIEk (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte) eta Jaurilaritzako Kultura Sailak sinatutako hitzarmena medio, eta unean uneko argitaletxeen lankidetzagaz, euskaraz irakur ditzakegu mundu zabalean argitaratu izan diren goi-mailako literaturaren obrarik adierazgarrienetakoak. Literatura unibertsala izendatu zuten bilduma horren lehenengo 100 aleak Ibaizabal argitaletxeak plazaratu zituen, gainerakoak (2002tik) Alberdaniaren eta Elkarren ekimenez merkaturatu dira. Oraingorako proposatutako

«Itzulgaien artean daude Proust, Lovecraft, Melville, Brontë, Achebe, F. de Rojas»

lan itzulgaien zerrenda hau da: *Things fall apart* (C. Achebe), *Wuthering heights* (Emily Brontë), *Burger's Daughter* (N. Gordimer), *Ipuinak* (N. Hawthorne), *At the Mountains of Madness* (Lovecraft) *Benito Cereno* eta *Billy Bud* (H. Melville), *A good man is hard to find...* (F. O'Connor), *A rebours* (Joris-Karl Huysmans), *L'insoutenable légèreté de l'être* (Milan Kundera), *Le Tartuffe* eta *L'Avare* (Molière), *Du côté de chez Swanm* (M. Proust), *Contes Cruels* (Villiers de L'Isle-Adam), *Simultan* (Inge-



Emily Brontë

bor Bachmann), *Der Untergebe* (T. Bernhard), *Redetzkmarsch* (Joseph Roth), *Ipuin antologia* (A. Schnitzler), *Il deserto dei tartari* (Dino Buzzati), *Le mezzogiorno della notte* (G. Bufalino) "La excavacion" (A. Platonov), "Don-eko ipuinak" (Sholokhov), *Ipuinak* (Horacio Quiroga), *La Celestina* (F. de Rojas), *El tunel* (E. Sabato), *Adios cordera...* (Clarín), *Balada da praia dos caes* (J. Cardoso Pires), *On Casmuro* (Machado de Assis), *A lus do candil* (Anxel Fole) eta *Ipuinak* (Pere Calders).

Bestalde, dagoeneko bilduma osatzen duten 117 liburuen zerrenda ezagutzeko:

www.eizeie.org/argitalpenak

liburuak

GURE GERRATOKO HEROIAK
Rafa Ugalde
Elkar

Beti gogorra eta kontatzen gataz izaten den gai batez gain ausartu da Rafa Ugalde bere azken lan honetan: gerra eta gerretako biktimak, gerlariak, inehelariak... Kontakizunaren bilduma bat eskaintzen digu idazleak eta horietako askotan pertsonaiak nahastuta agertzen dira.

EGUN BAT NIRE BIZITZAN
Bobby Sands
Txalaparta

Bobby Sandsek Irlandan, borrokan eta presoondagian bizitako batu zuen liburu batean. Eta 1981. urtean Sands bera eta beste bederatziz gizon hil zituen gose greba egin baino lehen Long Kesh kartzelatan ze egoera zegoen erakusten du.

[kirola]

Alicia Gonzalez > fitness txapelduna

"Hastapenetan azaldu zidaten moduan, fitnessa kulturista eta modelo baten arteko gorputza da"



Alicia lehiaketa batean

Alicia Gonzalez kulturista zela esan zigun txoritxu batek eta mundu hori barrutik ezagutzeko asmoz berarengana jo genuen. Telefonoaren beste aldeko ahots gozoa biziki asalatu zen gaia proposatzean: "Ez, mesedez, ni ez naiz kulturista, nik fitnessa egiten dut, ez dira berdinak!". Ostein, hastapenak izan ditu berbagai: "Onain dela 10 urte, gimnasiona joaten hasi nintzen, bertako beginale baten hitzak dauzkat gogoran: fitnessa modelo eta kulturista baten arteko gorputza da. Ez kulturistarena bezain handia, ezta modeloarena bezain fina ere... Hurrengo urtean lehiatu nintzen lehenengo txapelketan, baina gero haurdun gelditu eta... Iaz bueltatu nintzen; bizimodu bat da, kirola baino gehiago, jateko modu bat, filosofia bat", azaldu du 33 urteko getxoartzarrak. Halere, fitness-kulturismo bereizketan ondo argitu gura du iazko Euskal Herriko txapeldunak: "Kulturistek gorputz handiak dituzte, indartsuak, gero eta tamaina handiagoa bilatzen dute, 80 kg-gaz lehiatu bada hurrengoan 82 kg-gaz ahaleginduko da, 2 kg-ak muskulu-masa dira, lortzen zaila; ostera, fitnessak tamaina antzekoa dauka beti, estetika bilatzen du gehiago". Asteaz 90 min. inguruko saioa egiten du egunero, txapelketa

garaian zapatuetan ere dihardu eta domeketan ibiltzera eta doa; hori bai dieta berezia jarraitu behar du, "fitnessak maila pertsonalean haztea ekarri dit, jendea ezagutzen... Giro honetan burua eta iparra ez galtzea inportantea da, askok zu haien hatzazparretan hartu nahi zaituzte!". Espainiako Iparraldeko txapela bururatu berri du eta urrian Espainiako txapelketa du helburu. Bes-

«Txapelketetan gizonen eta andrazkoen artean diferentzia itzela dago, bai sarrietan, bai bestelakoetan»

talde, amorrut biziz salatu du txapelketetan emakumeenganako bazterketa, "noizbait zeozer lortzen badut saiatuko naiz hori aldatzen; gizonen eta andren artean diferentzia itzela dago, bai ekonomikoa, gizonen sariak ia bikoitzak dira, baita bestelakoak ere". Halaber, jendeak gutxiesteak pena ematen dio, "txarto begiratzen gaituzte, gorputza zaintzen dugu, atondu... eta? badago jendea astero ileapandegina doana! Uste dute ego itzela dugula eta gorputza bakarrik enakutsi nahi dugula, eta ez da hori, obolizta gainean urte osoko lana, esfortzua ahalegina dugu egun bakar batean". m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIROL MODA



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETOKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacofris S.L.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

HIRURAK T: 430

Sarrikobaso 15

Nazaria Tum eta Domingo Alvarez > Guatemalako APCD-Sierra

“Armadak egindako sarraskietatik bizirik irtendakoak dira gure komunitateak”



Guatemalako CPRn (Comunidades de Población de la Resistencia) egiten dute lan

Joan den maiatzean, euren egunerokotasunaren berri eman zuten Getxon Nazaria Tum eta Domingo Alvarez Guatemalako Garapenerako Nekazarien Elkarteko (APCD) kideek. 1975 eta 1993 urteen artean herrialdeak barne gatazka armatua jasan zuen eta, armadak egindako erasoetatik ihesean, Quiche zonaldeko biztanleak mendietan ezkutatu ziren. Euren lurak galdu eta izugarritzko jazarpena pairatu zuten orduan.

—Zein da Guatemalaren egungo egoera?

—(Domingo Alvarez) Nekazariak, komunitateak eta CPRko kideak arduratuta gaude garapenik ez dagoelako. Jendeak etxaldeetan egiten du lan soldata txiki baten truke, langabezia tasa handia da eta delinkuentzia handia dago. Gainera, Gobernuak ez du horri guztiari aurre egiteko garapen programa bat ezartzeko borondaterik. Larritzekoa da, txirotasunak aurrera jarraitzen du-eta.

—Zein da zuen herrian egiten duzuen beharra?

—(D.A.) Osasun arloan egiten dut lan eta CPR osatzen duten 18 komunitateetan jarduten dut. Nire zeregina osasun prebentiboa sustatzea da: etxeko higiena, ingurugiroa, higie pertsonala... Azken finean, gaixotasunak zelan ekidin. Aldi berean, gaixoak sendatzen saiatzen gara Medicusmundiri esker.

—(Nazaria Tum) Ni komunitateetako proiektuen koordintatzailea naiz eta hainbat ekintzatan hartzen dut parte: emakumei dagozkienak, elkartari dagozkienak, komunitateko arloan, etab.

—Zelan sortu ziren CPR eta APCD-Sierra?

—(N.T.) 80ko hamarkadan armadak gure lurretan egindako sarraskien ondorioz jaio ziren. Bizirik irtendako jendeak sortu zituen Erresistentziako Herri-Komunitateak edo CPR. Helburua, berriz, komunitateen garapena zen, baina jazarpenak eta bonbardaketak jasan genituen. Armada eta Gobernuak gu

«Armada eta Gobernuak gu gosez akatzen saiatu ziren»

gosez akatzen saiatu ziren, baina gure elkartari esker aurrera jarraitzen dugu, bidean galdu ditugunak ahazten ez ditugun arren. Gaur egun, departamentutan banatuta gaude, Gobernuagaz behin betiko kokapena negoziatu behar izan dugu-eta. APCD-Sierra, aldiz, CPRren legezko ordezkaria da; izan ere, Gobernuak ez du azkena aintzat hartu.

—Beharizan ugari izango dituzue.

—(N.T.) Lurraren arazoa daukagu, geurea da baina ez dago gure eskuetan. Gehienok ez daukagu ezer. Exebizitza, errefuxiatuak eta hezkuntza ere konpontzeke dauden auzi garrantzitsuak dira. Ikasketakaz komunitatearen garapena hobetzen dugu: lana, ekoizpena, osasuna... CPRko jende asko profesionala da dagoeneko eta, eskolak emateaz gain, unibertsitatera doaz. Ez dugu lur zati bategatik bakarrik behar egiten, gizartea eraldatzen saiatzen gara.

—Zein izan da zuen eginkizuna hemen?

—(N.T.) Medicusmundik gonbidatu ginen, gure egoeraren berri emateko. Kontaktu berriak egin ditugu eta zaharrak indartu. Halaber, eskoletan, Algortako kultur etxean eta osasun zentroan egon gara gure mezua zabaltzen. m

Esakere > “Ori da narru sendoa!”



Gauza eta persona bakoitxak beran leku dekola esaten da, baia beran lekutik urten ezkeron apur bet hankaz gora iminten direz gauzak, eta garikori estorbu eta egoneziñe ekarten dake. Beste batena dana edo danontzako dana guretzako hartzen badogu txarto hartuko gaituez, eta arpegi gogorrak garala, narru sendule dekule entzun beharko dogu... guk narririk bigunena eta fiñena badeku bere.

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskalerrriaren Yakintza” behar handin topako dozue.

Gure **berbakere** 79

ZELAN ESAN

Testua: **Xabi Bilbao**

Ordu esateko

Ehungarren UKn zenbakik, numeruk, zelan esaten direzen ikusi gendun. Goazen gaur zenbakikez esaten dogun (eta sarri buruko miñe emoten doskun) kontu bet ikusten: ordu.

Ze ordu da?

Orduk puntun: Ordu batak, ordu biék, hirúrek, láurek, bóstak, séirek, zazpírek, zortzúrek, bedrátzik, hamárrak, hamákak, hamábik.

Eta laurenak: Ordu batak eta láuren(ak), ordu biék eta láuren(ak), hirúrek eta láuren(ak), eta abar.

Lauren gitxiago: Hamábik láuren gitxiá, hamákak láuren gitxiá, séirek láuren gitxiá, eta abar.

Erdik: Lau ta érdik, bost ta érdik, sei ta érdik, eta abar.

Minutuk: Zazpírek eta bost, eta hamar, eta hogai, eta hogétabost, eta hogétasei,... / Zazpírek bost gitxiá, hamar gitxiá, hogai gitxiá, hogétabost gitxiá,...

Ze orduten?

Orduk puntun: Ordu bátatan, ordu biétan, hirúretan, láuretan, bóstatan, séiretan, zazpíretan, zortzúretan, bedrátziten, hamárratan, hamákatan, hamábiten.

Eta laurenak: Ordu batak eta láurenatan, ordu biék eta láurenatan, hirúrek eta láurenatan, eta abar.

Lauren gitxiago: Hamábik láuren gitxiáuten, hamákak láuren gitxiáuten, séirek láuren gitxiáuten, eta abar.

Erdik: Lau ta érditen, bost ta érditen, sei ta érditen, eta abar.

Minutuk: Zazpírek eta bosten, eta hamarren, eta hogaien, eta hogétabosten, eta hogétaseien,... / Zazpírek bost gitxiáuten, hamar gitxiáuten, hogai gitxiáuten, hogétabost gitxiáuten,...

Ze ordutik ze ordure?

—Bedrátzitetik ordu bátatara deku zábalik dénde, eta arrástin láuretatik zazpíretara.

—Hamárrak ta érditetik hona nau hemen begire baia ezta agertu iñor.

—Ordu batak ta láurenatatik hirúrek láuren gitxiáutara libre dekot bázkalduteko.

Ta oiñ ordu ona da hau akabateko: laster arten!

I
Iñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARBI
GIZONENTZAKO
MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Frutazko

brotxeta

Egiteko oso erraza den postrea proposatzen dizuet udaren atarian: frutazko brotxeta laranja-zuko almibarrean. Hasteko fruta laukietan zazitu eta brotxeta egin. Azukrea bota gainetik eta gero zartaginean eguzkiloare oliotan apur bat frijitu. Bestetik laranja-zuko almibarra prestatuko dugu. Litro erdi ur eta kilo erdi azukre nahastu eta sutan eduki apur bat loditu arte. Ondoren laranja biren zukua gehitu eta nahastu. Badaukagu. Plater hau txokolatetan bustitako gereziekin lagun daiteke. Platera borobildu nahi baduzu, zuritu mahats ale batzuk, almibarrean egosi apur bat. Gero azukrez busti eta ordubetez izozkailuan eduki. On egin! ^m

osagaiak (hiru laguntzat)

- melokotoi bat • meloi zati bat • 6 marrubi • madari bat



itsaso arana / jolastokikoa

Godello

mahatsa

Kalitate handiko mahats zuria da *godello*, oso aromatikoa, glizerina askoduna eta efektu berezia eragiten duen garraztasun gozoaren jabe. Berez Galiziakoa da eta Bierzo eta Valdeorras jatorri izendapenetan gehien lantzen da. Fruta berde, lore zuri eta belar aromak dauzka, anis eta mendafin (gure eskualdean, "batan" esaten zaio) ikutuekin. Bere indar aromatiko honez gain, bere beste ezaugarri azpimarragarrietakoa daukan izaera laktikoa da. Azken honegatik, hain zuzen ere, ematen dituen ardaoak oso erraz pasatzen dira ahotik, hau da, oso erraz edaten dira. Amaitzeko oso ardao orekatuak ematen dituela esan behar da. ^m



Lasai taberna

Etxeko giroa duen auzoko kafetegia



Santi (barraren atzean) bere lagunez inguratutik ostegun batean askaria hartzen

Orain dela 11 bat urte ireki zituen Santi Regueiro Allendek Lasai tabernako atea, makina bat urtean zehar itsasoan ibili ondoren; izan ere, itsasgizona izan zen lokala martxan jarri aurretik. *"Taberna jartzea kasualitatea izan zen. Oporretan nengoela enabaki nuen eta itsasoan baino gusturago bizi naiz orain"*, azaldu digu tabernariak. Denboraren poderioz auzokoen topaleku bilakatu zen Lasai eta antzinako tabernen giroa nabaria da gaur egun ere. Oraindik euren izenengatik deitzen zaie bezeroei Santirenean. *"Bezero leialak dira, lagunak azken finean"*.

Eskaintzen dituen pintxoak ere etxeak dira, bere emazteak egindakoak: patata tortilla, bokadilotxoak, sandwichak... *"Betikoak. Ez dira diseinuzkoak, baina bai goxo-goxoak"*,

azpimarratzen du Santik. Hala eta guztiz ere, egiten duen kafea izan da benetan lokalari arrakasta eman diona eta Aretako jendea ere kafea hartzera hurbiltzen dela dio oso harro. *"Kafetegia goizeko zazpietan irekitzen dut eta jende ugari dator hona armozua hartzera"*. Horrez gain, gintonicak ondo ateratzen zaizkiola diote bertan biltzen direnek.

Tabernako hormei erreparatu gero, jabearen izaera alai islatzen duten hainbat irudi ikus ditzakegu: Bilboko hizkuntzaren hiztegia, ardoaren hamar aginduak, Bilboko mapamundia... Futbolzale eta Athleticeen zale porrokatua, ostegunero lagun talde batez biltzen da tabernan merienda hartu eta kiniela egiteko. ^m

LASAI Euskal Herria, 22 - Algorta

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gaez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14

Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 | T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Turikaldei

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO



VIEJO

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak
 GETXOKO KIROL PORTUA
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
 Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
 T: 430 22 13 T: 460 02 88
 GETXO ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
 94 491 13 37

[horoskopoa]

| | | |
|--|--|--|
| <p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Jarraitu beharreko eredu zara besteentzat. Zure arropa, ibilkera, berba egiteko era...Ondo dago hori, fatxada bakarrik ez baldin bada... Baina, horrela jarraituz gero, ez duzu inoiz jakingo zaren bezala onartzen zaituzten.</p> | <p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Esaten dizuten guztia sinesten duzu... Inozoegia zara (hitzaren zentzu onenean) eta aldatzen saiatu beharko zenuke, jendea ez da-eta zu bezain ona eta adarra jo diezazukete. Ez izan mesfidati, baina kontuz ibili!</p> | <p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Lagun berriak egin beharko zenituzke. Zure koadrilan futbola da gai nagusi eta bakarria eta zuk beste gauza batzuk dituzu gustuko: mendia, txangoak, zinema... Ditzuzanak ez ahaztu baina saiatu adiskide berriak egiten.</p> |
| <p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Inguratzen zaituen guztiak zalantza eragiten dizkizu. "Jerse gorria ala morea erosiko dut?", "Hondarza ala mendia?", "Hori edo bestea?"... da zure buruko etengabeko zurrunbilo zalapartatsua, edonor bere senetik ateratzeko modukoa.</p> | <p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Fashionvictim halakoa! Gauza guztien modelo berriena eduki behar duzu beti eta originalena izan. Berdin zaizu dirua, askorik ez duzun arren. Zelan moldatzen zara? Beti lortzen duzu gura duzun guztia!</p> | <p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Gero eta gutxiago jakin hobe dela pentsatzen duten horietakoa zara. Begiak itxi eta beste alde batera begiratzen duzu. Hala eta guztiz ere, nozpait bizitzaren gordintasunari egin beharko diozu aurre, kosta ahala kosta.</p> |
| <p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Puputxu bat zara? Beti min duzula esaten, kexuka, aieneka. Atentzio falta al duzu? Guztiak zu goreستا gogoko duzu, zure aginduetara 24 orduetan. Ez al zara egongo inoiz zu emateko prest?</p> | <p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Eskolan klaseko lehenbizikoa zinen, unibertsitatean guztiek apunreak eskatzen zizkizuten; baina lanean hasi zarenetik zu baino hobea den jendea dagoela ikusteak deprimitzen zaitu. Ez zara mundu honetan bakarria. Horrelakoa da bizitza!</p> | <p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Zure bikoteagaz oso jeloskorra zara. Bai, egia da aurretik jende piloagaz ibili zela, baina ondo pentsatu, zeu zara izan duen bikote serio bakarria. Zeu hautatu zaitu eta izugarri gustura dago. Zer gehiago gura duzu!</p> |
| <p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Jendeaz txarto esaka zabilza eta gero damutzen zara. Askotan, gainera, arrazoi barik aritzen zara, ez dituzu-eta pertsona horiek ezagutzen. Inbidiak barruak jaten dizkizu. Kontrola zaitzez eta bakoitzak gura duena egin dezala.</p> | <p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Azterketen garaia heldu da eta zu inor baino urduiago jartzen zara, are gehiago azken urtea izanik. Botikan belar bedeinkatu batzuk erosi infusioak egiteko eta erlajatzeko ariketaxo batzuk ikasi. Funtzionatu egiten du!</p> | <p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Hizkuntzak ikastea ez zaizu batera erraz egiten. Ezin daiteke esan saiatua ez zarenik baina... Pazientzia hartu, agian besteei baino gehiago kostako zaizu, baina lortuko duzu, zure esku dago. Eutsi goiari!</p> |


mungia
oKINdegia



Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".


Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
 ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik



Ezker eskuin

1. Ez benetan. 2. Garbikari mota. Txoriaren kantu. 3. Una, neka. Euskal atzizkia. Gabezia. 4. Neskatila, neskatxa. Nor pluralean. 5. Balitz bezala. 6. Bokala. Oso txikiak. Berrogeita hamar. 7. Frantziako ibaia. Nevadako hiriburua. 8. Erreka handi. Baratze. 9. Letra grekoa. Mina. 10. Hazkura mingarria eragiten duen basalandarea. Luzera neurri zaharra.

Goitik behera

1. Polita, txairoa. 2. Mahai-jokoa. Jaurtigai. 3. Afrikako eskualdea, lehengo Etiopia. Uranioaren ikurra. 4. Har ezan. Klera. 5. Ibaian goratzen den olatua. Kasik. 6. Hamar. Ipar., osaba. Zintzo. 7. Interjekzioa. Ausartak. 8. Atzizkia. Ordotsa, apotea. 9. Adi ezan. Neukan. 10. Toka, noa. Lotan. Bokal bikoitza.

Soluzioak

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| V | N | V | K | V | N | U | S | V | |
| V | E | Z | V | N | I | O | | U | N |
| U | T | R | O | I | V | B | I | | |
| O | N | E | R | V | R | I | O | L | |
| L | | K | A | O | N | V | N | E | |
| N | V | Z | T | I | T | I | B | A | I |
| K | V | O | K | A | T | O | S | E | N |
| V | E | R | O | V | S | E | N | A | K |
| I | O | X | T | O | I | O | V | X | |
| T | A | N | E | T | X | A | N | T | X |

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Gipuzkoako semea
- Ingoterran bizi da
- Alemania aldean dabil egunotan

> Aurrekoaren erantzuna: Javier Clemente
> Irabazlea: **Xabier Angulo* (Asua)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g, Algorta
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



Bittor Egurrola

Erromoko futbol txapelketa, 1962

Erromon, beste leku askotan bezala, udan futbol txapelketa antolatu eta jokatzen zen. Inguruko herri guztietako taldeek parte hartzen zuten lehiaketa hartan. 1962ko talde finalista bietako kideak dituzue goiko argazkian: Erromoko *Kukusklan* eta Lamiakoko *La Fuente* taldekoak, hain zuzen ere. Argazkian azaltzen diren gehienek (artean 14-16 urte bitartekoak) urtean zehar jubeniletan jokatzen zuten euren futbol taldeetan.

Finala Erromoko *La Campa de Fernan* izenez ezagutzen zen zelaian jokatu zuten; landa horri *La Campa de los caballos* ere esaten zioten, antza mende hasiera aldean zaldi kortak egon zirelako han.

Argazkiak erakusten duen legez, txapelketa eta, batez ere, finala gertakizun inportantea izaten zen Erromon; txistularia, amabitxiak lore-sortekin, arbitro bi, delegatu bat... Amaitzeko datu bat: Lamiakokoek 2-1 irabazi zieten Erromokoei. m

Zutunik: ?, Julian Cardero, Txatxa Hernando, Edu Marquez, Juanjo Amo, Juanan Ortiz, Goio, Montoya, Maribel Ibañez, M. Loiti (GB), Bego Bilbao, Cremer, Emi Zubiaga, Cabada, Jandro, ?, Francia.

Makurtuta: Iñaki Bikandi, Fede Bilbao (GB), Jesus Manuel Sesumaga, Salva, Ateka, Bilbao, Armando Colon, P. Sesumaga, Koldo Bilbao, Iñaki Aresti.

[aitormenak]

AURKENE ITURRIOZ > kazetaria

“Guatemala leku polita, zaila eta interesgarria da aldi berean”

Testua: **Oiane Moran**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Naizen bezalakoa naiz.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez dakit, oso zaila da galdera hau. *Los angeles de Charlie* agian, nigaz zerikusirik ez duen arren.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Besteen alde lan egiten duen edonor.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Asko, denek bezala.

Aitor dezakezun bizio bat.

Eguzkia. Ahal dudan bezain beste joaten naiz hondartzara.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Bai, Gutemalara esate baterako. Oso ondo sentitu nintzen bertan. Leku polita, zaila eta interesgarria da aldi berean; dena biltzen duen herrialdea alegia.

Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?

Gezurra eta leialtasun eza.

Zein da zure ametsetako bat?

Nahi dudan bezain beste bidaiatu ahal izatea.

Lo egiteko ezer janzten al duzu?

Bai... Bakoitzak nahi duena imajina dezala.

Zein da ikusi duzun azken filma?

Pedro Almodovarren *Volter*. Gomendatzen dut.

Eta irakurri duzun azken liburua ?

Alto Riesgo, Ken Folletena. II. Mundu Gerraren inguruko istorioa da, abentura liburua. Idazle hori asko gustatzen zait. m

LABURREAN – Aukene Iturriozek ez du bere burua leku jakin batean kokatzen; izan ere, 37 urteko kazetariak kontatu digunez, ama bilbotarra du, ikasketak Leioako kanpusean burutu zituen eta bere bizitza osoa Goierrin zein Donostialdean eman du. Beraz, toki horietako onena eroan duela dio telebista aurkezleak eta ez du uste gipuzkoar peto-petoa denik. 1990ean hasi zen ETBn beharrean eta, orduetik, hamaika gauza egin ditu telebistan: erreportajeak, albistegiak, zuzenekoak, etab. Gaur egun, lurretako estudioetan egiten du lan, *Eguraldia* saioa eta atzerrian ikusten den Canal Vascoko albistegiak aurkezten.

Y tú
¿qué idiomas
vives?

Eta zuk,
zein hizkuntza
bizi dituzu?



cada persona tiene su opción,
y en **Getxo**
hay espacio para todas

Nork bere aukera du,
eta **Getxon**
denontzako lekua dago

